

ETXEPARE
JALGI HADI BATURA

Xabier Amuriza

*«Zergatik ez didazu liburu bat dedikatzen?»
esan zidanari*

Etxepare, jalgi hadi batura izeneko liburua 2021ean argitaratu nuen, autoedizioan. Liburuen eskaria amaitua denez gero, egoki iruditu zait webgunera igotzea, Etxepareri gutun atzeratua izeneko saiakeraren ondora.

AURKIBIDEA

Aitzin solasa	3
Oker baten ona.....	4
Linguae vasconum primitiae	7
Kristau doktrina.....	10
Amorosei oharra.....	36
Emakumeen alde.....	44
Ezkonduen koplak	48
Ezikutuko amorosa	51
Amorosen banantzea	53
Amoros jeloskorra.....	55
Pot baten eskea	57
Amore eskea	59
Amorosen disputa	63
Ordu gaitzarekin zoazkit hortik	67
Amore gogorraren despita	68
Mosen Bernat Etxepareren kantua	71
Kontrapas	77
Sautrela	79

AITZIN SOLASA

Bilbo Zaharra euskaltegiak antolatu ohi duen «Klasikoen irakurketa jarraia» aurten 14. ediziora heldu da, eta Bernat Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* izan da bertako protagonista nagusia. Inprimitutako lehen liburua baita, beharbada bera zatekeen egokiena gure ekimenaren estreinekoan irakurtzeko, baina orduko hartan, prosazko testua lehenetsi eta Axularren liburua aukeratu genuen irakurgaitzat, eta gero, kronologian aurrera eginda, egungo idazle eta obretaraino iritsi gara, beste hamabi ediziotan zehar.

Ekimenaren antolatzaileok, *Linguae Vasconum Primitiae* irakurtzeko erabakia hartu genuenean, bat etorri ginen halaber beste puntu garrantzitsu batean: alegia, Xabier Amuriza zela autorerik aiposena Etxepareren meritua azpimarratu eta haren lanaren balioa aldarrikatzeko.

Amurizarekiko bat etortze edo adostasun hark bazuen oinarri eta funtsik. Adituen arabera, Etxepareren poesia herrikoa da, bertsolaritzatik hurrekoa; Xabier Amurizaren izena, berriz, bertsolaritzako «goien grado»an da, ez bakarrik bertsolari txapelduna eta berritzailea izan delako, baita bertsoaren ikerlari fin, sakon eta zorrotza delako ere. Behin gure gonbita onaturik, arretaz berrirakurri zituen *Primitiaeko* bertsoak, eta testuaren berrirakurketak ate berriak ireki zizkion haren sormenari.

Etzanotarrak laster adierazi zuen bere iritzia: «Etxepare, poeta baino gehiago, koblakaria da, eta ziur aski letrak eta doinuak biak batera erabiliko zituen buruan, bertsoak paratzerakoan». Eta jarraian, erronka bikoitza planteatu zion bere buruari: batetik, *Primitiaeko* ahapaldiak kantutegi formatura egokitu; eta bestetik, bertsoak euskara batuan jarri. Artista izan behar da, inondik ere, horrelako desafio bati heltzeko. Jakina, bazuen eskarmentua eta bazituen baliabideak, hala nola hizkuntz-sena, bertsogintzaren historiaren ezagutza sakona, irudi poetikoei buruzko jakituria eta erritmo, puntu, neurri eta doinuetarako intuizio sotila. Tresneria horrekin nekez huts egin zezakeen.

Xabierrek egin duen lana hutsune handi bat betetzera dator. Hutsune bat, hain zuzen ere, ipar eta hegoaldeko euskararen artean dagoen aldeari dagokiona. Arazoak, aspaldikoa den arren, bere horretan dirau. Hala zioen Jon Etxaidek, duela 50 urte, Etxahunen bertsoak gizpuzkeraz jarri zituenean: «Mingarri zait, Etxahun-en bertso paregabeak irakurtzean, euskaldunik gehienak ez direla egosteko gai ohartzea... Eta penagarria da benetan, haren neurtitz bikainak, txastatu, ahogozatu eta ederretsi ezinean egon beharra... Gaitz negargarri honi sendabide eta erremedio eman nahirik, gaur-gero non-nahiko euskaldunak Etxahun-en bertsoen ederraz goza ahal ditezen, lan luze eta neketsu batean murgildu natzaizue: alegia, Etxahun-en bertsoak oro gizpuzkera osotu batean ematen. Ene ustez, ez dugu beste biderik euskaldunen artean Etxahun-en lana ezagun-erazteko».

Halatan, bada, aurtengo irakurketak opari bikaina utzi digu: *Linguae Vasconum*-eko bertsoak euskara batuan. Xabier Amurizari zor diogu lorpena. Euskaltegiko ikasle, irakasle eta gainerako guztien izenean, mila esker eta mila zorion, adiskide!

Bilbo Zaharrean, 2021eko udazkenean

Pedro Alberdi

OKER BATEN ONA

«O felix culpa, quae talem et tantum meruit habere Redemptorem!». «O, erru dohatsu, erredentore halako eta hain handia edukitzea merezi izan zuena!». Esaldi honek baditu hamasei mende, eta esan nahi du jatorrizko bekatua «dohatsua» izan zela, Jesukristo etorraz zuelako. Geroztik, «O felix culpa» hura esamolde ohiko bilakatu da, oker batetik ona etorri dela adierazteko. Nik esaldi latinoa honela aplikatu beharko nuke: «O felix culpa, quae talem et tantum meruit habere proiectum!». «O, erru dohatsu, honen proiektu zoragarria ekarri zuelako!».

Zein izan zen errua edo okerra? Bilbo Zaharra euskaltegiak antolatu ohi duen Klasikoen Irakurketa Jarraitua izenekoan, 2021eko ekainaren 3an, Bernat Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* zen liburu hautatua, Arriagan irakurria izateko. Aurretik hiru hitzaldi izango ziren, zeinetako bat niri proposatu baitzidaten, eta nik pozik onartu. Maiatzaren 31n prentsurreko bat izan zen Arriaga antzokian, non neu ere parte hartzera gonbidatua izan bainintzen, ekimenaren eragile bezala. Prentsurreko hartan, Etxepareri buruzko neure sentimendu ezberdinen haritik, esan nuen ezen, neure interbentzioa prestatzean, hitzaldia baino areago, saiakera bat atera zitzaidala, gaiari gustua hartu niolako. Eta saiakera horren barruan, Etxepareren antologia bat egokitu nuela euskara batura, poema bakoitzetik lau edo bost estrofa ustez onenak edo esanguratsuenak hautatuz. Hamalau kanta, nolabait, hiru bat minutukoak. Bakoitzari dagozkion azalpen batzuk gehituz, ordu eta laurden inguruko ekitaldi bat, deklamaturia eta kantaturia, non uste bainuen Etxepareren ikuspegi argi eta oso bat entzun eta goza zitekeela.

Prentsurrekoan horixe esan nuen, edo esan nahi izan nuen, baina ez nuen, nonbait, ondo azaldu, edo kazetariak ez zuten zuzen ulertu. Hala, bihamuneko informazioetan agertu zen «Amurizak batuan egindako Etxepareren bertsoa» irakurriko zela Arriagako ekitaldian. Hortxe hasi zen «oker baten ona». Arriagan, nola ez, Etxepareren originala irakurri genuen. Baina komunikabideen informazioa sinetsi zutenen artetik, deiak etortzen hasi ziren, bai euskaltegiari, bai niregana, ea non topa zitekeen Etxepareren bertso hura. Lan txiki bat gehiago izan genuen nahasmena argitzen. «Baina hara! – piztu zitzaidan argi bat –. Berri oker horrek halako interesa sortu badu, zergatik ez egia izan dadin egin?». Eta berehalako bulkada batek agindu zidan: «Hori egin egin behar da!». Hainbat arrazoiren konbergentzian, eginkizun zoragarria iruditu zitzaidan. Hona konbergentziaren arrazoi batzuk:

1) Etxepare gure lehen idazlea da. Lehenengoa bat izaten da beti, eta betiko. Elementu horrek euskaldun guztiok ukitzen gaitu, hemengoak eta mundu guztikoak. Garenak eta izango direnak. Inork ezin dio kendu titulua. Alderdi hori oso zirrargarri egin zait beti.

2) Etxeparek euskararen lehen idazlea izatearen kontzientzia argia, garailea, euforikoa erakusten du. Ez dizkio, noski, ezaugarri horiek zuzenki aplikatu bere buruari, euskarari baizik. Eta «Garacico herria»-ri, zeina baita hark «behar duyen thornuya»-ren emaile. Horrela, espresuki adierazi gabe, idazlea bera bilakatzen da hizkuntzaren eta herriaren balanka miragarri. Eta noraino jaso ere euskara! «Oray hura iganen da berce ororen gaynera». «Ez francesa ez berce, oray ezta erideyten Heuscararen pareric». Horiek guztiak benetan sentitu bazituen – eta ez dirudi haren estiloa itxuratia denik –, Etxepare euskaldunik zoriontsuena izan da. Haren bizipenak neure gogoan berritzen saiatzen naizenean – ezin dira egiazki berritu, baina hurbiltzen naiz –, emoziozko deskarga batek korritzen du nire izate guztia.

3) Zergatik bertsio-itzulpena, eta ez itzulpen soila? Etxeparek, gaurko terminologian (Hegoaldean, behintzat), bertsoak eta koplak paratzen ditu. Gehienak (13) bertso sortak dira: 11 «zortziko zahar» (8/7 neurrikoak), eta 2, «zortziko txikiagoak», 6/5 neurrikoak. Beste 2ak koplak sortak dira, hiru puntukoak.

Errima aldetik, Etxepareren teknika oso «hasikina» da, bere liburuaren izenburuko hitz bat («primitiae») aplikatzeko. Errima ahula esango genuke gaurko ikuspegitik. Eta batez ere, bariazio gutxikoa. *IA, IK, IAN* eta *ZU* dira gehienak, eta besteak ere, nahiko errepikatuak eta makalak. «Potoa» deritzon akatsa ere (hitz bera estrofa berean ointzat errepikatua) noiznahi egiten du batere erreparo gabe. Argi dago Etxeparek ez zeukala errima-sistema garatu bat. Neurrian nahiko zuzena da, baina hor ere, gaurko ikuspegitik, libertate handiak daude. Eta abar.

Hauek eta beste zenbait kontsiderazio kontuan izanik, pentsatu nuen itzulpen soila baino interesgarriagoa litzatekeela bertsio-itzulpen bat. Garbi esanda, itzulpen soil bat egitera ez nintzen animatuko, ez bainion interes handirik ikusiko. Bai, ordea, bertsio-itzulpenari. Berehala jabetu nintzen zailtasunak asko handitu zirela. Errima bariatzen eta neurria zehazten hasiz gero, hitz eta esamolde asko aldatu behar dira. Nola burutu «traizioa», ideiak eta esanahia lehenean utziz? Ehuneko ehunean ezinezko erronka bada ere, nire ardura eta ahalegin nagusia izan da emaitza izan dadila Etxepare, eta ez ni. Alegia, bertsio-itzulpenak ukan dezala Etxepareren aire osoa, eta ez nirea. Aitortu behar dut, lortu dudan neurrian, ahalegina gozamen handia izan dela. Orain neuk ere badut, Etxepareren gerizapean, «hasikinaren» parte zerbait izatearen poz garailea.

O HAR BATZUK

1) Bai Etxeparek eta bai Iparraldeko tradizioak, estrofen idazkeran, puntua edo errimadun zatia lerro bakarrean idazten dute. Nire bertsioan, Hegoaldeko joera nagusia den erara ebakitzen dira puntuak. Adibidez, 8/7 neurriko puntua bada («zortziko zaharra»), Etxeparek 15 silabako puntua lerro bakarrean emango du. Nire bertsioan, puntuak bi lerrotan zatitzen dira, 8 eta 7 silabatan banatuak. Horrez gainera, Etxeparek egiten ez badu ere, sorta bakoitzeko estrofak zenbakitzea baliagarri iruditu zait.

2) Testu originala uzten saiatu naiz beherago aipatuko den faksimilean bezala, salbuespen batzuekin.

a) Faksimilean *u, v, n* hizkiak nahiko indistintoki trukutzen dira: *fauorez, vnasa, densere*. Nik guztiak sistematikoki «zuzendu» ditut, nolabait, honela utziz: *favorez, unsa, deusere*.

b) Faksimilean, sarritan, batez ere aditz laguntzaileen kasuan, bi hitz ezberdin batera idatzita datoz: *handiendenian, hardaçagun, othedate, gueldicenda*. Honelako guztiak bereiz transkribatu ditut: *handien denian, har daçagun, othe date, gueldicen da*. Batzuetan, bi hitzen elkarketan gertatzen da hizkiren bat jatea: *gomendadi, beguireçan, igorritu, bazirere*. Edo aldatzea: *eztu, eztuyen, eztuçu, ezpazina*. Horiek guztiak dauden moduan utzi ditut.

c) Etxeparek puntuazio-markarik ez du ia bat ere erabiltzen. Batzuetan, estrofen amaieran ere ez dator punturik. Izen bereziak ere (bere abizena eta Jainkoa barne) maiz ageri dira minuskulan, eta guretzat minuskula behar luketenak maiuskulan. Ez dira transkripzio-akatsak, faksimilean halaxe datozenak baizik.

3) Nik behar nuen bibliografia testua ondo ulertzen lagunduko zidana izan da. Honakoak dira erabili ditudanak:

1545 Bernat Dechepare. Olerkiak. Lino Akesoloren gaztelaniazko itzulpena, Luis Mitxelenaren hitzaurrearekin.

Linguae Vasconum Primitiae. Edizio kritikoa. Patxi Altuna. PDFa sarean dago. Jose Luis de Orellaren (gaztelaniaz) eta Patxi Altunaren beraren hitzaurreekin.

Linguae Vasconum Primitiae. 1545 - 1995. Bernard Etxepare. Euskaltzaindia. Testu originala faksimilean, eta beste bat, grafia eta ortografia gaurkotuetan, Patxi Altunaren gorago aipatu hitzaurrearekin. Gehi hizkuntza hauetara itzulpenak: gaztelania, ingelesa, frantsesa, alemana eta italiera.

Linguae Vasconum Primitiae. Euskaltzaindia, Eusko Legebiltzarra. 2. argitaraldia. Xabier Kintanaren hitzaurrearekin. Testu originala faksimilean, eta beste bat, grafia eta ortografia gaurkotuetan. Gehi beste hizkuntza batzuetara itzulpenak.

Linguae Vasconum Primitiae. 14 Forum hitzaldiak. Patri Urkizu, Iñaki Aldekoa, Itxaro Borda, Tere Irastortza, Aingeru Epaltza, Koldo Izagirre, Xabier Amuriza. Bilbo Zaharra Euskaltegia. 2021.

Azken liburu hauxe da, hain zuzen, Bilbo Zaharra Euskaltegiak argitaratu zuena, urte horretako «Klasikoen irakurketa jarraia» izenekoaren inguruko hitzaldiekin. Horietan zehar, Etxepareri buruzko informazio eta iritzi ugari aurkitzen da. Bibliografia gehiago nahi duenak aipatu liburuotan aurkituko du nahi beste.

LINGUAE VASCONUM
PRIMITIAE

per Dominum Bernardum
Dechepare
Rectorem sancti michaelis
veteris

Ohar bitez inprimatzailea eta irakurleak *z* ez dela inoiz *m*-ren ordeztu ipintzen, ez eta *i*-ren aurrean *t* ebakitzen *c*. Eta *ç*-ren azpian hor bezala kako txikia ezartzen denean, *a*, *o*, *u* bokalen aurrean egiten baita, orduan *c* hori *z* baino pitin bat lazkitzeago ebaki behar da, *ce*, *ci*-etako bezala.

LINGUAE VASCONUM
PRIMITIAE

per Dominum Bernardum
Dechepare
Rectorem sancti michaelis
veteris

Aduertant Impessor, et lectores quod *.z.* nunquam ponitur pro *.m.* Neque *.t.* ante *.i.* pronunciatur pro *.c.* Et vbi virgula ponitur sub *.ç.* hoc modo quod fit dum praeponitur vocalibus *.a.o.u.*, tunc *.c.* pronunciabitur paulo asperius quam *.z.* vt in *.ce.ci.*

Erregeren abokatu bidezko eta nobleari, bertute eta on guziez konplituari, bere jaun eta jabe Bernard Leheteri, Bernard Etxeparekoak, haren zerbitzari txipiak, gogo onez goraintzi, bake eta osagarri. Zeren baskoak baitira abil, animos eta jentil, eta haietan izan baita eta baita zientzia guzietan letratu handirik, miraz nago, jauna, nola bat ere ez den saiatu, bere lengoia propiaren faboretan, euskaraz zerbait obra egitera eta izkributan ematera, zeren ladin publika mundu guzietara, bertze lengoaiak bezala, hain izkiriatzeko on dela. Eta kausa honegatik gelditzen da abataturik ezein erreputazio gabe, eta bertze nazio orok uste dute ezin deus ere izkiria daitekeela lengoia hartan, nola bertze orok baitute izkiriatzen berean. Eta zeren zuk, jauna, noble eta naturazkoak bezala, baituzu estimatzen, goratzen eta ohoratzen euskara, zuri, neure jaun eta jabea bezala, igortzen dizkizut euskarazko koplak (1) batzuk, ene ignorantziaren araura eginak. Zeren, jauna, haiek ikusirik eta korrejiturik plazer duzun bezala, irudi bazaizu, inprima erazi ditzazun, eta zure eskutik orok ukan dezagun ioia ederra inprimaturik, euskara, oraino izan ez dena, eta zure hatse onetik dadin aitzinerat aumenta, kontinua eta publika mundu guzietara, eta baskoek, bertzek bezala, ukan dezaten beren lengoian izkribuz zerbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko (2) eta denbora iragateko materia, eta jinen direnek gero ukan dezaten kausa haboro haren abantzatzeko, eta obligatu gaitezen guziak Jainkoari otoitz egitera, dizun mundu honetan prosperoki bizia eta bertzean paradisua. Amen.

Erregeren advocatu vitezko eta nobleari virthute eta hon guciez complituyari bere iaun eta iabe Bernard Leheteri Bernard echeparecoac haren cerbitzari chipiac gogo honez goraynci baque eta ossagarri. Ceren bascoac baitira abil animos eta gentil eta hetan içan baita eta baita sciencia gucietan letratu handiric miraz nago iauna nola batere ezten assayatu bere lengoage propiaren favoretan heuscaraz cerbait obra eguitera eta scributan imeitera ceren ladin publica mundu gucietara berce lengoagiac beçala hayn scribatzeco hon dela. Eta causa honegatic guelditzen da abataturic eceyn reputacione vague eta berce nacione oroc uste dute ecin deusere scriba dayteyela lengoage hartan nola berce oroc baitute scribatzen beryan. Eta ceren oray çuc iauna noble eta naturazcoac beçala baytuçu estimatzen goratzen eta ohoratzen heuscaraz çuri neure iaun eta iabia beçala igorten darauritzut heuscarazco copbla batzu ene ignorantziaren araura eguinac. Ceren iauna hayec iqhussiric eta corregituric plazer duçun beçala irudi baçautzu imprimi eraci diçaçun eta çure escutic oroc dugun ioia ederra Imprimituric heuscaraz orano içan eztena eta çure hatse honetic dadin aitzinerat augmenta continua eta publica mundu gucietara eta bascoec bercec beçala duten bere lengoagian scribuz cerbait doctrina eta plazer harceco solaz eguitemo cantatzeco eta denbora igaraiteco materia eta ginen direnec guero duten causa oboro haren abançatzeco eta obligatu guiren guciac geyncoari othoyz eguitera dizun mundu honetan prosperoqui vicia eta bercian parabiçuya. Amen.

1) Originalean, «kopbla» . Errakuntzaz ala berariaz? Geroago, «ezconduyen coplac». Etxepareren buruan, beraz, bera «koblakaria» edo «kobla jartzailea» zen. Hegoaldean, «bertsolari» dioguna.

2) Argi dago Etxeparek kantatuak izateko asmoz paratu zituela bere koplak. Gaurko terminologian eta Hegoaldean, koplak edo «bertso» sorta horiek bitarikoak dira: gehienak, bertsoak («zortziko zaharrak»), eta batzuk, koplak, bi edo hiru puntukoak.

KRISTAU DOKTRINA

1)
 Munduan den gizon orok
 behar luke pentsatu
 Jaungoikoak nola duen
 bat bedera formatu.
 Bere irudi propiora
 gure arima kreatu
 memoriaz, borondatez
 adimenduz hornitu.

2)
 Ezein jaunec ez du nahi
 etxean morroi txarrik
 ez ordaindu soldatarik
 zerbitzatu gaberik.
 Jaungoikoa ari duzu
 gutaz hala - halarik
 ongi egin gabe ez du
 emanen gloriarik.

3)
 Morroiek gu zerbitzaten
 daramate urtia
 soldata apur bategatic
 hartzen pena handia.
 Jaungoikoak behar luke
 guk bezainbat balia
 zerbitzatzuz bera gero
 har dezagun gloria.

4)
 Ez dakusat gari biltzen
 hazia erein gabeki
 nork zer hazi erein duen
 hura biltzen komunki.
 Obra onak izanen du
 sari onik frankoki
 baita ere bekatuak
 gaztigua segurki.

Doctrina Christiana

Munduyan den guičon oroc
 behar luque pentsatu
 Iangoycoac nola duyen
 batbedera formatu
 Bere irudi propiara
 gure arima creatu
 Memoriaz vorondatez
 endelguyaz goarnitu.

Eceyn iaunec eztu nahi
 muthil gaixtoa eduqui
 Ez pagatu soldataric
 cerbiçatu gaberik
 Iangoycua ari duçu
 hala hala gurequi
 Gloriaric ez emanen
 hongui eguin gaberik

Muthilec gure cerbiçutan
 deramate urthia
 Soldata apphur bategatic
 harcenc pena handia
 Iangoycoac behar luque
 guc veçanbat valia
 Cerbiçatu behar dugu
 emaytecoz gloria.

Oguiric eztacussat vilcen
 haci ereyn gaberik
 Norc cer haci ereyn (baitu)
 vilcen dici comunqui
 Obra honac vqhenen du
 goalardona frangoqui
 Bayetare beqhatuyac
 punicione segurqui.

5)
Egunero ari zaigu
Jainkoa on egiten
geuk ere ongi behar dugu
hartaz izan oroimen.
Gure haste eta amai
pentsa nola hura den
goiz eta arrats gogo osoz
lauda izena haren.

ARRATSEAN

Arratsean etzatean
Jainkoa lagun bekik.
Egik otoi gorde hazan
peril guztietarik.
Gero itzar hadinean
oroit hadi bertarik
zenbait otoitz esatera
deboziaz beterik.

GOIZEAN

Ahal baduk joan hadi
elizara goizean
Jainkoari han gomenda
bere etxe donean.
Pentsa ezak han sartzean
nor duan aitzinean
eta nori mintzo haizen
han hagoen artean.

HILERRIAN

Hilerrian oroit ezak
ongi hilen mundua
nola hire gisako zen
haien bizimodua.
Haien gisan hil behar duk
eta ez jakin ordua
egik otoitz Jaunak eman
deian barkamendua.

Ceren ieyncoa egun oroz
ongui ari bayçaygu
Guc ere hala behar dugu
harçaz unsa orhitu
Gure hatse eta fina
hura dela pensatu
Goyz etarrax orhituqui
haren icena laudatu.

Arraxian

Arraxian ecitian
gomendadi ieyncoary
Eta othoy beguireçan
peril gucietaric
Guero iraçar adinian
orhit adi vertaric
Cenbait ere oracione
erraytera devotqui.

Goycian

Albadaguic ioan adi
eliçara goycian
Ieyncoari han gomenda
bere eche saynduyan
Han sarcian pensa eçac
aycinian nor duyan
Norequila minço yçan
han agoen artian.

Ilherrian

Hilez unsa orhit adi
ilherrian sarçian
Hi nolaco ciradela
vici ciren artian
Hec veçala hil behar duc
eta ez iaquin orduya
Othoy eguic ieyncoari
deyen varcamenduya.

BATAIARRIA

Elizara hoanean
bataiarrira beha
pentsa ezak han duala
hartu heure fedea
Jainkoaren grazia eta
salbatzeko bidea.
Harri horri egin heure
lehen aintzat hartzea.

GORPUTZ SANTUA

Bertan gero beha ezak
gorputz santua non den
pentsa hura dela hire
salbatzailerik goren.
Adora ezak gogoz eta
galde grazia, arren
azken kinkan hartze duin bat
ukan dezaan haren.

GURUTZEA

Gurutzea ikus eta
orduan oroit hadi
nola haren odol santuz
redimitu haizen hi.
Hark herio hartua dik
bizia eman ez hiri
pentsa orain nola itzuli
bere ordea hari.

ANDRE DONA MARIA

1)
Andere ona den lekura
altxa ezak begia
mundu oro ezin baitzaik
hura bezain balia.
Jainkoaren hurbilena
bera zagok glorian
grazia oro eskuan dik
nahi duen aldian.

Batheyarria

Eliçara içanian
so eguic bateyarrira
Pensa eçac han duyala
recebitu fedia
Ieyncoaren gracia eta
salvaçeco vidia
Hari eguin albaiteça
lehen eçagucia.

Gorpuz saynduya

Vertan guero so albaitegui
non den gorpuz saynduya
Pensa eçac hura dela
hire salvaçalia
Adoreçac devocionez
eta galde gracia
Azquen finian eman diaçan
recebice dignia.

Curucea

Crucifica iqhus eta
orhit adi orduyan
Nola yçan redemitu
haren odol saynduyaz
Harc eryo haritu dic
hiri leyan vicia
Pensa ezac nola eman
hari vere ordia.

Andredona Maria

Andere hona den leqhura
ailcha içac veguiac
Mundu oro eztaquidic
hura veçayn valia
Ieyncoaren hurranena
hura diagoc glorian
Graciac oro vere escuyan
nahi duyen orduyan.

2)
O, andere loriosa
eta ama eztia!
Zu zara bekatarien
esperantza guztia.
Ni zugana natorkizu
bekatari handia
ene arima salbatzera
zakizkidan balia.

SANTUEI

Santu-santei ere egin
zinez heure aitormen
singularki noren haizen
herori debotoen.
Oroit hadi egun hortan
zein santuren festa den
eta noren izenean
eliza fundatu zen.
Eska gogoz denei nola
laguntzen ahal hauten.

IGANDEKO OTOITZA

1)
Misericordia oroz
betea zaren jauna
otoi entzun dezazula
nire eske sakona.
Bizi naizen aldi eta
berdin heriorena
gorde, otoi, bere osoan
beti nire adimena
alteratu gabe nire
zugango sinesmena
gauzak ondo egiteko
heltzean nire azkena.

O andere gloriosa
eta ama eztia
çutan dago beqhatoren
sperança gucia
Ni çugana nyatorqueçu
beqhatore handia
Arimaren salvacera
çu çaquiztan valia.

Saynduyer

Saynduyer ere eguin eçac
heure eçagucia
Singularqui nortan vaytuc
heure devocionia
Ceyn saynduren vesta daten
orhit egun verian
Eta noren ycenetan
fundatu den eliça
Orhituqui othoy eguin
daquizquian valia

Oracione igandeco

Misericordiaz bethe
ciraden iaun eztia
Othoy ençun yaçadaçu
neure oracionia
Bici niçan artian eta
erioco phunduyan
çuc ydaçu othoy osso
neure endelgamenduya
Alteratu gabetaric
çure fede saynduyan
Gaucen unsa eguiteco
neure azquen finian.

2)
Eta orduan emadazu
grazia eta burua
bekatuez ukaiteko
behar dudan damua
perfektuki egiteko
konfesio santua
lor dezadan nik bekatu
oroz barkamendua
eta duinki hartu zure
gorputz bedeinkatua
baita ere behar diren
beste sakramentuak.

3)
Etsai gaitza etorriko
baita ni tentatzera
nondik engainatu bere
arteen arabera
bidal, Jauna, zeure santu
oro ni laguntzera
nire etsaiak azken kinkan
ezin nazan mendera.

4)
Eman nire arimari
zeure on-izatea
zure odol santuz izan
baitu redimitzea.
Eta ikus dezadala
zure begitartea
eta lauda santuekin
zure maiestatea.

5)
Goiz eta arrats artatzen haiz
biluztez eta janitez
gorputza ere zerbitzen duk
bazkari eta afaltzez.
Heure arima salbatzeko
Jainkoaren ohorez
gauza horiek egitea
ez bekik gerta nekez
egunero ezin bada
bai astero igandez.

Eta orduyan çuc ydaçu
indar eta gracia
Beccatuyez uqheyteco
vide dudan doluya
Perfectuqui eguiteco
neure confessionia
Neure beqhatuyez oroz
dudan varqhamenduya
Bay dignequi errecebi
çure gorpuz saynduya
Bayetare vehar diren
verce sagramenduyac.

Exay gayça ginen vayta
tentacera orduyan
Nontic engana niroyen
vere arte guciaz
Othoy iauna enguztaçu
lagun çure saynduyac
Enexayac venci enaçan
neure azquen finian.

Ene arima orduyan har
othoy çure glorian
Nola vaita redemitu
çure odol saynduyaz
Eta nic han dacussadan
çure veguitartia
Eta saynduyequi lauda
çure magestatia

Goyz etarrastz egiten duc
buluz eta vezticia
Gorpuçaren cerbiçutan
barzcarî afaria
Arimaren salvaçeco
ieyncoaren ohorian
Eçayala othoy neque
gauça hoyen eguitia
Egun oroz ecin vada
aste oroz igandian

6)
Gure artean hau dakusat
itsutasun handia
nola dugun zerbitzaten
hainbat gure etsaia.
Jaungoikoa ignoratu
gure salbatzailia
eta denok jakin hori
dela bidegabia.

7)
Anitz jendez miraz nago
neure buruaz lehenik
nola gauden mundu honekin
hain bortizki josirik.
Hainbat jende dakusagu
berak engainaturik
artekoak oro igorri
ditu biluz gorririk
eta ez dute gerokoek
handik eskapatzerik.

8)
Pertsona oro hiltzean da
hiru zati egiten:
gorputza da usteltzera
lur hotzean jaurtitzen.
Ondasuna ahaideek
bertan dute partitzen.
Arima gaizoa dudan
nora joan daiteken.
Hain bidaia bortitzean
konpainia faltatzen.

9)
Gogo osoz behar dugu
igandean pentsatu
zenbatetan egin dugun
aste hartan bekatu.
Oroit eta Jainkoari
barkamena eskatu
nola atorra, arima ere
aste oroz garbitu.

Gure artian haur dacussat
ixutarçun handia
Nola dugun cerbiçacen
hanbat gure exaya
Iangoycua desconoci
gure salvaçalia
Eta oroc eçagucen
dela videgabia

Anhiz gendez miraz nago
neure buruyaz lehenic
Nola gauden mundu hunequi
hayn vorthizqui iossiric
Hanbat gende dacuscula
hunec enganaturic
Oranocoac ygorritu
oro buluzcorriric
Eta eztute gueroceoc
hantic escapaceric

Personoro hil denian
hirur çathi eguiten
Gorpuzori ustelcera
lur hoçian egoyzten
Vnharçuna ahaidiec
vertan dute particen
Arima gaixoa dabilela
norat ahal daguien
Hayn viage vortician
compaynia faltacen

Orhituqui ygandian
vehar dugu pentsatu
Cenbatetan eguin dugun
aste hartan beccatu
Orhit eta ieyncoari
barqhamendu escatu
Atorra nola arimere
aste oroz garbitu.

10)
Bi puntutan datza gure
hil-biziko kontua:
ongi egin badezagu
segur zero altua
bekatuan hiltzen dena
bertan kondenatua.
Besterik ez dago. Egin
onenaren hautua.

11)
Inon ere ez dakusat
hain laxo den artzainik
non otsoa ez duenik
kentzen ardietarik.
Geure arimaz kargu dugu
Jaungoikoak emanik.
Nola dugun gobernatzen
ikus norberegandik.
Kontu hertsia eman behar
diogu hartaz segurik
bere odolaz gaitunari
eros hain kariorik.
Hala sinets ez dezana
dago engainaturik.

12)
Pasio santuan behar
dugu josi begia
eta senti bihotzean
haren pena handia.
Nola zegon gurutzean
dena zauriz betia
oin-eskuak iltzaturik
eta biluzgorria.

13)
Lapurrekin gaizkile bat
bezala urkatua
mundu ororen jabea
arantzaz koroatua.
Haren gorputz prezioso
eta delikatua
gaizki eskarniaturik
eta zatikatua.

Bi pundutan diagoçu
gure gauça gucia
Hongui eguin vadaçagu
segur parabiçuya
Beqhatutan hil dadina
bertan comdenatuya
Berce videric ecin date
hobenari beguira.

Ehon ere eztacusat
hayn laxo den arçaynic
Oxo qhencen eztuyenic
bere ardietaric
Gure arimaz cargu dugu
iangoycuac emanic
Nola gobernacen dugun
bat bederac so begui
Condu hersi vehar dugu
harçaz eman segurqui
Nori baitu vere odolaz
carioqui erossi
Hala cinex eztaçana d
auque enganaturic.

Contemplatu vehar dugu
passione saynduya
Eta sendi vihocian
haren pena handia
Nola çagoen curucian
oro çauriz bethia
Huyn escuyac içaturic
eta vuluzcorria

Ohoynequi vrcaturic
nola gayzquiguilia
Eta arhancez coroaturic
mundu ororen iabia
Haren gorputz prezioso
eta delicatuya
Gayzqui escarniaturic
eta çathicatuya.

14)

Ai, orduan nola zegon
haren ama tristea!
Haren ama maite eta
mundu ororen habea.
Pena haietan ikustea
bere seme maitea
eta hiltzen hala bizi
ororen emailea!

15)

Bihotzean daramatzat
zinez, ama ezia
zure orduko dolorea
eta bihotz-zauria.
Begiz nola zenekusan
zure jabe handia
edonondik zeriola
bere odol garbia.
Guztia neugatik zela
daukat kontu argia.

16)

Oroit adi nola duan
egin bekatu anitz.
Hoi en kausaz hondatzea
zor huen hainbat aldiz.
Bere miseriak
babestu izan hau maiz
eta damu izan baduk
barkatua izan haiz.
Eta agian hik berbertan
bekatu egin berriz.

17)

Oroit ezak Jainkoaren
maiestate handia
bere esku dituk zeru
lur, itsaso guztia
salbatzea, damnatzea
herioa, bizia
orotara hedatzen duk
haren potestatea.
Inork ezin saihestu dik
haren aginpidea.

Elas orduyan nola çagoen
haren arima tristia
Haren ama maytia eta
mundu ororen habia
Pena hetan ecustean
bere seme maytia
Eta hilcen veguietan
mundu ororen vicia.

Viocian diraustaçu
guertuz ama ezia
çure orduco doloriac
eta vihoz çauriac
Beguez nola cenacusan
çure iabe handia
Orotaric laryola
odol preciatuya
Hec nigatic ciradela
ari nuçu qhonduya.

Orhit adi nola duyan
eguin anhez beçhatu
Heyen causaz merexitu
anhecetan hondatu
Bere misericordiaz
nola huyen guardatu
Eta dolu uqhen vaduc
vertan oro barçhatu
Eta aguan hic eguinen
vertan verriz beçhatu.

Orhit adi iengoycoaren
magestate handiaz
Ceruya lurra ychaso
daduçala escuyan
Salvacia damnacia
eryoa eta vicia
Estendicen orotara
haren potestatia
Eci escapa hari ehor
dauginian manuya.

18)
Mundu hontan dezakegu
batak bestea engaina
baina bestean aurretik
egia da doana
nor nolako izan garen
azalduko duena.
Egin, esan, pentsatuak
han agertuko dena.

19)
Oroit ezak Jainkoaren
justizia handia
nola denok behar dugun
eman kontu hertsia.
Egin dugun oroz hartu
zer dugun merezia
herioa izango da
haren mezularia.

20)
Ordu hartan apelatzen
hastea da alferrik
hark inori ez emango
ordu baten eperik.
Ezta ere bereiziko
txikirik ez handirik
bakoitzak du ekarriko
bere zama bakarrik.

21)
Orduan nik zer egingo
-gaizo bekataria!-
ararteko inor gabe
kontra juje handia?
Abokatzen ez jakingo
inork haren gortian.
Hoben oro izango da
publiki ageria.

22)
Ea, otoi, egin denek
orain penitentzia
gero agian noiz behar den
faltako da astia.
Luzamenduz engainatu
ohi da sarri jendia
inork ez du segururik

Mundu honetan vadirogu
batac bercia engana
Bana vercian eguiatic
bat bedera ioanen da
Nor nolaco içan guiren
orduyan aguerico da
Eguin erran pensatuyac
aguerico guciac.

Orhit adi ieyncoaren
iusticia handiaz
Nola oroc vehar dugun
eman qhonda hersia
Eguin oroz recebitu
gure merexituya
Eryoa dauginian
vayta haren meçuya.

Ordu hartan afer date
hari apellacia
Harc ehorri eztemayo
oren vaten epphia
Ecetare estimacen
chipia ez handia
Bat vederac egarrico
orduyan vere haxia.

Orduyan cer eguinen dut
gaixo beqhataria
Arartecoac faltaturen c
ontra iuge handia
Abocacen eztaquique
ehorc haren gortian
Oguen oro publicoqui
aguerturen orduyan.

Elas othoy oroc eguin
oray penitencia
Behar orduyan eztuquegu
guero aguan aizina
Anhiz iende enganatu
doa luçamenduyaz
Seguraturic ehorc eztu

egun baten bizia.

23)

Egunero bizi gara
heriotzaren mende
behar dugu prest eduki
zer den guztia geure.
Gauzak oro ordenatu
sano gauden bitarte
gero izan ez dezagun
haiekiko lanbide.
Badukegu han aski lan
geure arimaz ere.

24)

Pentsa, otoi, nola gauden
bi bideren erdian
salbatzeko baino are
damnatzeko zorian.
Inor fida ez dadila
otoi, banitatan.
Santuak ez ziren sartu
banitatez glorian.

25)

Ea, otoi, beha honat
bekatari guzia:
bekatutik damnatzen du
Jainkoak gizakia.
Nola hainbat bekatutan
daramagu bizia
eta gero geure faltaz
biltzen geure gaizkia?

26)

Artzain orok biltzen ditu
ardiak arratsean
leku onera eramaten
eguraldi gaitzean.
Bat bederak pentsa beza
arimaren gainean
nola duen salbatuko
hura bere finean.

egun vaten vicia.

Gu guirade egun oroz
heryoaren azpian
Behar dugu prest eduqui
gure gauça gucia
Gure gaucez ordenatu
osso guiren artian
Guero eztugun eguiteco
heçaz azquen finian
Arimaz asqui eguiteco
vaduquegu orduyan.

Pensa othoy nola gauden
bi bideren erdian
Salva bano damnaceco
perileco punduyan
Ehor fida eztadila
othoy vanitatan
Saynduyac eçiraden sarthu
vanitatez glorian.

Elas othoy hunat vaha
beqhatore gucia
Beqhatuyaz damnacen du
iangoycuac munduya
Ceren hanbat veccatutan
deramagu vicia
Eta guhaurc gure faltaz
galcen gure buruya.

Arzayn oroc vilcen ditu
ardiac arraxaldian
Leqhu honerat eramayten
eguraldi gaycian
Bat bederac pentsa veça
arimaren gaynian
Nola salvaturen duen
hura vere finian.

27)

Hobendunek infernuan
dute pena handia
pena handi, izugarri
atsedenik gabia.
Sekulako jasan behar
hango sugar bizia
zuhur denak, ez joateko
egin penitentzia.

ARMAK HERIOTZAREN KONTRA

Heriotza iristen da
gutxien dela uste
eta agian atzemango
zaitu konfesatzeke.
Hiru gauza badituzu
aurretik ongi bete
nola ere hilko zaren
salbabidean zaude.

LEHEN EGIA

O, Jaun ona! Aitortzen dut
naizela bekatari
eta gaizki egiteaz
dudala hoben handi.
Nik baitzaitut ofenditu
bide nuenaz gaindi
dolu diot, damu diot
zure kontra eginari.

BIGARREN EGIA

O, Jaun ona! Promes dagit
ordu present argian
gordetzea bekatutik
bizi naizen aldian.
Otoi, Jauna, jar nazazu
indar eta grazian
gogo hontan irauteko
neure bizi guzian.

Beqhatorec yfernuyan
dute pena handia
Pena handi ycigarri
eceyn pausu gabia
Seculacoz egon vehar
hango sugar vician
çuhur denac hara eztohen
eguin penitencia.

Harmac eryoaren contra

Eryoa iauguiten da
guti uste denian
Eta aguian ez emanen
confessione epphia
Hirur gauça albaditu
ehorc ere eguiaz
Nola ere hil vaytadi
doha salvamenduyan.

Lehen eguia

O iaun hona aytorcen dut
beqhatore niçala
Eta gaizqui eguitiaz
oguen handi dudala
Nic vaycitut offensatu
bide eztudan veçala
Dolu dicit eta damu
çure contra eginaz.

Bigarren eguia

O iaun hona gogo dicit
oren present honetan
Goardaceco beqhaturic
vici niçan artian
Othoy iauna çuc ydaçu
indar eta gracia
Gogo honetan yrauteco
neure vici gucian.

HEREN EGIA

1)
O, Jaun ona! Promes dagit
garizumara joa
egiazki egitea
neure konfesioa.
Baita ere betetzea
penitentzia osoa
Hala dadin, zuk konfirma
otoi, ene gogo.

2)
Eta hoiek egiazki
nork ez dituen bete
jakin beza, duda gabe
ezin salba daiteke
bere bekatuak oro
konfesaturik ere.
Engainatu nahi ez denak
har beza horren fede.

3)
Izan apaiz, apezpiku
nahiz izan aita santu
absolbitzeko halako bat
ezein botere eztu.
Jaunak beti bihotzera
begiratzen baitzaitu
guk geuk baino argiago
gogo ikusten dizu.
Gogo gabe, harendako
hitz oro alfer duzu.

4)
Antola ezak egunero
ontsa heure etxea
heure gauza guztietan
izan diligentea.
Penitentzian har ezak
heure lan egitea
eta zernahi amaitzean
lauda Jainko maitea.

Heren eguia

O iaun hona gogo dicit
gariçuma denian
Eguiazqui eguiteco
neure confessionia
Vayetare compliceo
didan penitencia
Othoy iauna çuc confirma
ene vorondatia.

Eta hoyec eguiazqui
ehorc hala ezpaditu
Albayliaqui duda gabe
ecin dateyela salbu
Bere beqhatuyac oro
vaditu ere confessatu
Eta hala çinhex beça
nahi eztenac enganatu.

Apezec ez apezpicuc
ezetare ayta saynduc
Absolvacen halacoaren
eceyn bothereric eztu
Iangoycua bethiere
vihocera so diagoçu
Guhauc vano segurago
gure gogua diacuxu
Gogua gabe hura vaytan
hiçac oro afer tuçu.

Regla eçac egun oroz
onsa heure etchia
Eure gauça gucietan e
mac diligencia
Eta eure trabayluya
duyan penitencia
Iangoycua lauda eçac
gauça ororen buruyan.

5)
Solaskide izan ezak
beti lagun onena
gaiztoekin ezin baituk
izan baizik galmena.
Ez besteri inoiz egin
heuk nahi ez hukena
ezta utzi egin gabe
heuretzat ongi dena.
Lege honi segi bedi
salbu nahi duena.

HAMAR AGINDUAK

- 1) Adora ezak Jaungoiko bat onets oroz gainetik.
- 2) Haren izena ez iura kausa gabe banoki.
- 3) Igandeak eta bestak santifika debotki.
- 4) Aita eta ama ohora itzak bizi haizen luzeki.
- 5) Ez hil inor, ez inori gorrotorik atxiki.
- 6) Emazterik nork bereaz besterikan ez uki.
- 7) Besterenik ez hik inoiz lapurtu ez eduki.
- 8) Fama gaitzik ez hik eman lagunari faltsuki.
- 9) Besteen emazte-alabak ez desira gaiztoki.
- 10) Ezta ere ondasunak izan ezik justuki.

Aginduak hoiek dira
Jaungoikoak emanik.
Zain ditzagun oro, salba
gaitezen berengatik.

Honequila albayteça
bethi ere conversa
Gaixtoequi ecin ayte
gayzqui beci provecha
Bercer eguin eztaçala n
ahi eçuqueyena
Ezetare falta ere
hiaurc nahi duyana
Legue honi segui vedi
salbu nahi duyena.

Hamar manamenduyac

Adoreçac iangoyco bat
onhestz oroz gaynetic
Haren ycena ez iura
causa gabe vanoqui
Ygandiac eta vestac
sanctifica devotqui
Ayta eta ama ohora içac
vici yçan lucequi
Ehor erho eztaçala
ezetare gaycetsi
Norc veria vayecila
emazteric ez hunqui
Vercerena eztaçala
ebaxi ez eduqui
Fama gayciq eztemala
lagunari falsuqui
Bercen emazte alabac
ez desira gayxtoqui
eçetare vnhasuna
lecot bedi iustoqui.

Manamenduyac hoyec dira
iangoycuac emanic
Hoc veguira diçagula
salva guiten hegatic.

JUDIZIO JENERALA

1)

Judizio jeneralaz
oroitzen ez baitira
bekatuan bizi dira
beti beren aisira.
Egun hartan gal ez gaiten
aitzinetik begira
han ez dugu denborarik
izango geure nahira.
Hartaz ongi oroitzea
zuhurtzia handi da.

2)

Segi, segi mundu oro
judizio larrira
zeru-lurren kreatzaile
handiaren aurrera.
Mundu oro jujatzera
zorrozki dator bera
nola gauden apaindurik
ohar bedi norbera.

3)

Agindua bidaltzen du
mundu guztietarik
jende oro bat dakion
Josafat-en bildurik.
Inon ere, inor ere
eskapatu gaberic
zeru eta lur guztia
daude ikaraturik.

4)

Herioa agintzen du
ezein hutsik gaberic
hilak oro dakartzala
aitzina bizirik
handik hara boterarik
ez dukela jagoitik.
Mundu oro jarriko da
bi lekutan itxirik:
glorian edo infernuan.
Ez da eskapatzerik!

Iudicio generala

Iudicio generalaz
nola orhit eztira
Beccatutan vici dira
bethi vere aysira
Egun hartan gal ezquiten
aycnetic veguira
Han orduyan eztuquegu
ehorc ere ayzina
Harçaz unsa orhitcia
çuhurcia handi da.

Arma arma mundu oro
iudicio handira
Ceru eta lur ororen
creadore handia
Munduyaren iuyacera
rigorosqui heldu da
Nola gauden apphaynduric
bat bederac beguira.

Manamendu ygorten du
mundu gucietaric
Gende oro bat daquion
iosafaten vilduric
Ehon ere ehor ere
eskapatu gaberic.
Ceru eta lur gucia
daude yqharaturic.

Eryoa manacen du
eceyn falta gaberic
Hilac oro dacacela
aycinera viciric
Hantic harat eztuquela
vothereric iagoytic
Mundu oro iarriren da
bi lecutan hersiric
Glorian ezpa yfernuyan
ezta escapaceric.

5) Agintzen du infernua
handi eta bortizki
han direnak bidaltzeko
luzamendu gabeki.
Arima eta gorputzetan
nahi dituela ikusi
bakoitzari emateko
nork zer duen merezi.

6)
Jende onak, ongi pentsa
juje honen gainean
nola duen potestate
osoa den-denean:
herioan, infernua
zeru eta lurrian.
Nola habil, bekatari
haren kontrabidean?

7)
Gure artean hau dakusat
itsutasun handia
nola dugun zerbitzatzen
hainbat gure etsaia.
Jaungoikoa ignoratu
geure salbatzailia
nahiz denok jakin hori
dela bidegabia.

8)
Hona gorputz-arimentzat
pisuzko sententzia:
elkarrekin infernua
pairatu gar bizia.
Betirako su horretan
faltako da aisia.
Denok, otoi, pentsa ongi
zer den irabazia.

9)
Egundaino ez da izan
ez izango jaioatik
judizio hain handirik
ezta ere bortizik.
Sortu eta sortzekoak
hilez gero pizturik
denek hara behar dute
ihesbide gabarik.

Manacen du yfernua
andi eta vortizqui
Han direnac ygoriçan
luçamendu gaberic
Arima eta gorpuçetan
nahi tuyela icussi
Eta emanen darayela
cer vaytute mereci.

Gende honac onsa pensa
iuge hunen gainian
Nola duyen gucietan
potestate handia
Eryoan yfernua
ceru eta lurrian
Ceren dabil haren contra
vada veqhatoria.

Gure artian haur dacussat
ixutarçun handia
Nola dugun cerbiçacen
hanbat gure exaya
Iangoycoa desconoci
gure salvaçalia
Eta oroc eçaguçen
dela videgabia.

Haren bier emanen du
sentencia piçuya
Elgarrequi pena diten
ifernuco garrian
Seculaco suyan eta
eçeyn pausu gabian
Oroc othoy onsa pensa
cer den yrabacia.

Egundano ezta içan
ez içanen iagoytic
iudicio hayn handiric
ezetare vorthizic
Sortu eta sorcecoac
hilez guero pizturic
Oroc hara vehar dute
escusatu gaberic.

10)
Anitz gauza behar dira
auzi handi batetan:
juje jaunak ahalmena
izan parte denengan
demandantak aurkeztea
bere kausa egitan
defendentak ere bere
defentsa egin bertan
frogaturik gelditzean
arrazoia norik daukan
sententziak agin dezan
nori berea eman.

11)
Egun hartan juje izanen
mundu ororen jabia
daukalako ororen gain
potestate handia.
Salatzaile dela bera
eta kontzientzia
bekatu oro izanen da
publiki ageria.

12)
Mundu oro egonen da
kontra bekatarien
nola haien kreatzaile
ona iraindu duten.
Ordu hartan isil, triste
bekataria zeren
edonondik zerraturik
pausu guztiak dauden.

13)
Juje jauna sumindurik
egonen da gainetik
irenstera igoko da
infernua azpitik.
Etsai gaitza akusatzen
ezkerreko aldetik
bekatuak mintzatuko
publiki eskuinetik:
«Hire kontra hemen gaituk
hik herorrek eginik».
Eta etsai gaiztoena:
kontzientza barnetik.

Anhiz gauça vehar dira
iudicio handian
Iugeac duyen potestate
parte ororen gainian
Demandantac erran deçan
vere causa eguiac
Bayetare defendentac
bere defensionia
Porogatu datenian
norc duqueyen çucena
Sentenciaz eman deçan
iugiac nori veria.

Egun hartan iuge date
mundu ororen iabia
Baytu ororen gainian
potestate handia
Acusari vera date
eta conciencia
Beqhatu oro publicoqui
aguerico orduyan.

Beqhatoren contra date
orduyan mundu gucia
Ceren duten ofenditu
hayen creaçalia
Ordu hartan ixil dauque
triste veqhatoria
Orotaric cerraturic
daude paussu guciac.

Iuge iauna iraturic
egonen da gaynetic
Yrestera apphaynduric
yfernuya azpitic
Exay gayça acusacen
ezquerreko aldetic
Beccatuyac escuynetic
minçaturen publiqui
Hire contra heben guituc
ihaurorrec eginic
Gayzquienic contra date
conciença varnetic.

14)
Estaltzeko inon ez da
leku onik izanen.
Ordu hartan nor ausartu
han bistara azaltzen?
Mundu oro jarriko da
biziki kontra haien
santu-santak ere bertan
isil-isil egonen
juje jaunak ez entzunen
erregurik inoren.
Egun hartaz oroit gaiten
otoi, hara baino lehen!

15)
Non egonen egun hartan
gure jaun erregiak
markes, duke, zaldun, konde
ta beste jaun nobliak
eta haien arma-gizon
sendoen balentriak?
Hartan gutxi balioko
du haien potentziak.

16)
Iurista eta teologo
poeta, doktoriak
prokurador, abokatu
juje eta notariak
ordu hartan agertuko
klarki haien txarkeriak
eta gutxi balioko
kontu eta parleriak.

17)
Aita santu, kardinale
apaiz eta prelatu
eman behar beren eta
ardi ororen kontu.
Egun hartan handiena
izanen da herratu
eta handi eta txiki
denak berdin epaitu.

Estalceco ez içanen
ehon ere leqhuric
Aguercera norc eguinen
ordu hartan vathiric
Mundu oro egonen da
hayen contra iarriric
Saynduac ere ordu hartan
oro egonen ixilic
Iugeac ere ez ençunen
ezeyn ere othoyc
Egun harçaz orhit guiten
othoy hara gaberic.

Non dirate egun hartan
hebengo iaun erreguiac
Duque conde marques çaldun
eta verce iaun nobliac
Eta hayen armadaco
guiçon sendoen valentiac
ordu hartan valiaco
guti hayen potenciatic.

Iurista eta theologo
poeta eta doctoriac
Procurador advocatu
iuge eta notariac
Ordu hartan aguerico
clarqui hayen maliciatic
Eta guti valiaco
cautela eta parleriatic.

Ayta sayndu cardenale
apphez eta prelatuyac
Berez eta ardi oroz
eman vehar han conduya
Egun hartan handiena
yçanen da erratuya
Eta vardin iuyaturen
handia eta chipia.

18)

Alferrik da egun hartan
hari apelatzea
ezein jaunek ere ez du
hari gainik hartzea.
Malizia gaitzi zaio
eta maite egia.
Elas, otoi, egin orok
orain penitentzia
egun hartan ez dezagun
larritasun handia.

19)

Seinaleak jinen dira
aitzinetik tristerik
elementak ibiliko
denak tribulaturik.
Eguzkia, ilargia
odoletan etzanik
itsasoa sumindurik
goitik eta behetik
hango arrainak izaturik
ibiliko jalgirik.

20)

Eta lurra izugarri
gutziz ikaratua
landareek dakartela
izerdi odoldua.
Ekaitz eta trumoi larriz
airea sumindua
mendi eta harri oro
elkar zatikatuak
mundu oro jarriko da
suak arrasatua.

21)

Juje jaunak aginduko
bera etorri baino lehen
gauzak oro garbi ditzan
suak berak lehenen
zikin eta kirats oro
dadin mundutik alden.
Eta hala lur guztia
kiskalia izanen.

Afer date egun hartan
hari apellacia
Ehon ere eztaçagu
iaunic vere gaynian
Malicia gayci çayca
eta mayte eguia
Elas othoy oroc eguin
oray penitencia
Egun hartan guero eztugun
eguiteco handia.

Seynaliac ginen dira
aicinetic tristeric
Elementac ebiliren
oro tribulaturic
Iguzquia ilharguia
odoletan ecinic
Ychaso samurturic
goyti eta veheyti
Hango arraynac icituric
ebiliren ialguiric.

Eta lurra icigarri
oro iqharaturic
çuhamuyec dacartela
odolezco ycerdi
Tenpestatez igorciriz
ayre oro samurric
Mendi eta harri oro
elgar çaticaturic
Mundu oro iarriren da
suyac arrasaturic.

Iuge iaunac manaturen
vera iauguin gaberik
Gauça oro xahu deçan
vehin suyac lehenic
Saxu eta quirax oro
dohen mundu guctic
Eta hala iarriren da
lur gucia erreric.

22)

Trompeta da mintzatuko
mundu guztietarik:
«Hilak oro, jaiki hona
zeuen hobietarik!».
Arima eta gorputzetan
denak bertan pizturik
denok hara behar dugu
ihesbide gabarik.

23)

Justu oro igoko da
bertan gora airean
eta egongo eskuinetik
jujearen aldean.
Bekatariak dolorez
sugarrean, lurrean
harik eta entzun arte
sententzia gainean.

24)

Jende oro dagoela
aitzinean bildurik
etorriko da zorrozki
santuekin zerutik.
Josafat-en kokaturik
airearen gainetik
bekatariei sartuko
die beldur handirik.
Haren hitzak oro utziko
ditu erdiraturik.

25)

Hartu nahi zuenean
pasiona santua
haren aurka jin zenean
jendetza armatua
hitz huts batez oro utzi
zuen han izutua.
Jujatzera etortzean
maiestatez bildua
nola ez du beldurtuko
ordu hartan mundua?

Trompeta da minçaturen
mundu gucietaric
Hilac oro iayqui huna
çuyen hobietaric
Arima eta gorpuçetan
oro vertan pizturic
Oroc hara vehar dugu
escusatu gaberic.

Iustu oro yganen da
bertan goyti ayrian
Eta egonen escoynetic
iugearen aldean
Beccatoreac dolorezqui
sugarrian lurrian
Hariq eta dançuteno
sentencia gaynian.

Dagoenian gende oro
aicinian vilduric
Iauguinen da rigorosqui
saynduyequi cerutic
Iosafaten egonen da
airian gora iarriric
Beccatorer eguinen du
arrangura handiric
Haren hiçac eçarriren
oro erdiraturic.

Hartu nahi çuyenian
passione sayndua
Haren contra gin cenian
armaturic gendia
Hiz hux batez icituric
egocitu lurrian
Iuyacera dauguinian
magestate handian
Nola eztu loxaturen
ordu hartan munduya.

26)
Bekatariei esango
die penaz barrendik:
«Ongi bizi zineten, bai,
nitaz kezka gabarik!
Hamaika on egin nuen
bizitzan zuengatik
eta ez dut zuen esker
on bat jaso oraindik.

27)
Zer ere on baituzue
guztiak dira ene
gorputz eta on guztiak
arimak ere barne.
Zeru eta lurrak egin
ditut zuen ondare
eguzkia, ilargia
eta fruituak ere.

28)
Suak bero, urak garbi
airea hats hartzeko
aingeruak zuen goarda
santuak ararteko.
Zuengatik eman nuen
neure bizia gero.
Zer izan da zuen ordaina
horiengatik oro?

29)
Maiz ikusi ohi zenuten
beharrean pobria
eri, gose, egarria
eta biluzgorria
ene izenean eskatuz
limosna errukarria.
Eta zuek haiendako
beti esku urria.

Erranen du bechatorer
dolorezqui orduyan
Niçaz ecineten orhit
bici cinetenian
Hanbat ongui nic eguinic
çuyer çuyen mendian
Esquer hon bat uqhen eztut
çuyeganic vician.

Cer ere hon vaytuçuye
oro dira eniac
Gorpuz eta hon guciac
baietare arimac
çuyendaco eguin ditut
lurra eta ceruyac
Yguzquia ilharguia
eta fructu guciac.

Suyac vero hurac xahu
hax harceco ayria
Aynguruyac çuyen goarda
ararteco saynduyac
çuyegatic eçarri dut
guero neure vicia
Hoyegatic orogatic
cer da çuyen paguya.

Icussiric anhicetan
beharrian pobria
Eri gosse egarria
eta buluzcorria
Ene ycenian anhicetan
galdeguinic limosna
çuyec uqhen baytuçuye
heçaz guti ansia.

30)

Bai eroki konplazitu
etsaia ene kontrako
demonio, haragia
mundua ere halako.
Orain bedi maldizio
guztia zuendako
infernuko sua eta
nekea betirako
eta zuen konpainian
demonioa bego.

31)

Ez da asko luzatuko
emango den epaia
lurra bertan izango da
erditik irekia.
Suak bere barnean du
irentsiko guztia
hori izanen bekatuen
azken irabazia.

32)

Ai, zer nola izanen den
samin handia hemen
samin handi, izugarri
buelta gabea, zeren
hainbat jende sekulako
baita kondenaturen.
O, Jaun ona! Zain gaitzazu
galmen hartatik, arren!

33)

Jaunak gero bereengan
ezarriko begiak:
«Goazen denok elkarrekin
ene adiskidiak!
Beti eta sekulako
gauden ene glorian
desira oro konpliturik
alaitasun handian».

Bay erhoqui conplacitu
ene contra exaya
Demonio haragua
bayetare munduya
Oray dela çuyendaco
maradicionia
Ifernuco suya eta
iagoytico nequia
Eta çuyen conpaynia
demonio gucia.

Ezta anhez luçaturen
execucionia
Bertan date yrequiren
lurra oren verian
Su harequi irexiren
oro vere varnian
Haur yçanen veccatoren
undar yrabacia.

Elas nola yçanen den
heben damu handia
Damu handi içigarri
remedio gabia
Hanbat iende seculacoz
damnaturen denian
O iaun huna çuc guiçaçu
othoy hantic veguira.

Veretara içuliren
ditu guero veguiac
Goacen oro elgarrequi
ene adisquidiac
Bethi eta seculacoz
gauden ene glorian
Desir oro conplituric
alegria handian.

34)
Handik hara ez da izanen
bi alde baizik bertan:
damnatuak infernuan
betirako penetan
salbatuak Jainkoaren
betiraun alegeran.
Jainko horrek sar gaitzala
gu ere alde honetan.

35)
Zerua ez da ibiliko
handik hara jagoiti
eguzkia egonen da
ekialdean geldi
ilargia sartaldean
jarririk begiz begi
egun horrek iraunen du
gurekin beti-beti.
Hemen ez da geldituko
deusik bizi ez berri.

36)
O, Jaun ona, kreatzaile
gurea zu baitzara!
Bekatari bagara ere
oro zureak gara.
Gure faltaz zuk egina
gal ez dadin hartara
gure arimak ditzazula
garbi eta anpara.

37)
Baldin gugan aurkituko
balitz falta handia
are duzu handiago
zugan pietatia.
Gu zureak gaiten, otoi
egiguzu grazia.
Zure ama anderea
dakigula balia!

Hantic harat ezta içanen
bi erretatu bayeci
Damnatuyac ifernuyan
bethi dolorerequi
Salvatuyac ieyncoarequi
bethi alegueraqui
Iangoycuac daguiela
gure partia hoyequi.

Ceruya ezta ebiliren
hantic harat iagoytic
Yguzquia egonen da
orienten gueldiric
Ilharguia occidenten
beguiz begui iarriric
Egun honec yraunen du
eben eta iagoytic
Alabana ez içanen
heben gauça viciric.

O iaun hona çu cirade
gure creaçalia
Beccatore baguirere
oro guira çuriac
Gure faltaz gal eztadin
othoy çure eguina
Beccaturic garbizaçu
othoy gure arimac.

Baldin erideyten vada
gutan falta handia
Are duçu handiago
çutan pietatia
çuretaric guiren othoy
eguiguçu gracia
çure ama anderia
daquigula valia.

OTOITZA

1)
Ave Maria anderia (1)
grazia oroz betia
Jainkoaren ama birjin
berak erabakia.
Zeru eta lur ororen
erregina dignia
bekatarien abokat
eta konfortaria.

2)
Ni zugana natorkizu
bekatari handia
karioki otoituz zu
zakizkidan balia
nahiz ez naizen zure izena
aipatzeko dignia
ez jartzeko zure aurrean
zeren bainaiz lohia.

3)
Errukiz betia zaren
ene andere handia
ez nazazu, otoi, iraitz
ezta menosprezia.
Zuk eman ez niri bizkar
ene ama ezia
galdua dakusat bertan
nire izate guztia.

4)
Hainbat nauzu gauza orotan
ni bertute gabia
ordu oroz bekatuan
nabilen alderraia.
Eta beti nora ezik
nola itsu ardia
engainatzaile direla
mundua, haragia.

1) Sorta luze hau guztia *LA* erriman jarria dago. Ez dakit kasualitatea den ala Etxeparek berariaz egina, zerbaitegatik. Zerbait hori zein izan daitekeen ez dut atzematen, dena *Maria* hitzarekin errimatzeagatik ez

Oracionia

Ave maria anderia
gracia oroz bethia
Ieyncoaren ama virgen
verac ordenatuya
Ceru eta lur ororen
erreguina dignia
Beqhatoren advocata
eta konfortaria.

Ni çugana niatorqueçu
beccatore handia
Carioqui othoycera
çu çaquiztan valia
Digne ezpaniz aypacera
çure ycen saynduya
Ez gitera aycinera
ceren bayniz saxuya.

Misericordiaz bethe
ciren andere handia
Enaçaçula othoy yrayz
eta ez menosprecia
çuc guibela badidaçu
elas ama ezia
Ordu hartan diacusaçut
galdu neure buruya.

Hanbat nuçu gauça orotan
ni verthute gabia
Oren oroz beccatutan
nabilena galduya
Eta bethi erratuya
nola ardi yxuya
Mundu hunec haraguiac
bethi enganatuya.

bazen, ohore era bat bezala. Hala izatera, argiago erakutsita egon behar zuela iruditzen zait, baina hala dago. Nahiz eta zergatik jakin ez, detaile markagarria denez gero, halaxe uztea erabaki dut, bariazioaren kalterako bada ere.

5)
Zu baitzara dohain denen
ama eta iturria
bertute eta on guztien
gordetzaile handia
egundaino bekatuan
makulatu gabia
bertutean segitzeko
egidazu grazia.

6)
Zugan dago bekatari
denen konponbidia
itxaropen, salbamendu
eta osagarria.
Galdua da zuk bizkarra
damaiozun guztia
eta salbu nori eman
dionun babeskia.

7)
Jaunak zuri eman dizu
potestate handia
haren ama zu baitzara
ama ere maitia.
Zeru-lur orotan hainbat
dezazula balia
zuk eskatzen duzun dena
izan dadin betia.

8)
Zure eskutik har bezate
beste denek grazia
salba bedi zuregana
jotzen duen guztia.
O andere bikain eta
ezein pare gabia!
Egidazu salbatuen
arteko izatia.

çu baicira gracia ororen
ama eta yturburuya
Verthute eta hon gucien
thesorera handia
Egundano beccatutan
maculatu gabia
Verthutetan seguiceco
eguidaçu gracia.

çutan dago beccatoren
remedio gucia
Sperança ossagarri
eta salvamenduya
çuc guibela demaçuna
nola vayta galduya
çure gomenduyan dena
halaver da salbuya.

Ieyncoac çuri eman dici
potestate handia
Haren ama ciren guero
ama ere maytia
Ceru eta lur orotan
duçun hanbat valia
Cer çuc galde baytaguiçu
den conplitu gucia.

Eta çure escutic duten
verce oroc gracia
Eta salva çuc deçaçun
çuri gomendatuya
O andere excelente
eceyn pare gabia
Salvatuyetaric niçan
eguidaçu gracia.

9)
Zuri nauzu gomendatzen
hila eta bizia
neure gorputz eta arima
eta dudan guzia.
Otoi, behar orduetan
zu zakizkit balia
eta, otoi, zuk goberna
nire bizialdia.

10)
Eta irabaz Jaunagandik
indar eta grazia
bekatuez egiteko
ongi penitentzia.
Eta gero bertutean
daramadan bizia
eta egin gauza orotan
haren borondatia.

11)
Jagon, otoi, okerretik
nire gorputz pobria.
Bekatuan hil ez nadin
egidazu grazia.
Ez nadila gal betiko
kondenatu tristia
baizik ukan zure eskutik
salbatzeko bidia.

12)
Eta gero etortzean
ene heriotzia
arimaren partitzeko
oren izugarria
ordu hartan beharko dut
eman kontu hertsia
eta egin dudan oroz
hartu neuk merezia.

3)
Eta ez jakin lehen gauan
non den ostatu - etxia
ez eta zu ez bazara
nor dakidan balia.
Ordu hartan hel zakizkit
otoi, ama eztia
ararteko leial eta

çuri gomendacen nuçu
hila eta vicia
Neure gorpuz eta arima
eta dudan gucia
Othoy vehar orduyetan
çu çaquičat valia
Eta othoy çuc goberna
ene vici gucia.

Eta yrabaz ieyncoaganic
indar eta gracia
Beccatuyez eguiteco
unsa penitencia
Eta guero verthutetan
deramadan vicia
Eta eguin gauça orotan
haren vorondatia.

Beguiria othoy mescabutic
ene gorpuz pobria
Beccatutan hil ez nadin
eguidaçu gracia
Seculacoz damnaturic
enoyan galduya
Bana çure escutic dudan
salvaceco vidia.

Eta guero dauginian
ene eryocia
Arimaren particeco
oren ycigarria
Ordu hartan behar baytut
eman condu hertsia
Eguin oroz recebitu
neure merexituya.

Eta ez iaquin lehen gaoyan
non daten ostatuya
Ezetare çu ezpacira
nor daquidan valia
Ordu hartan hel çaquičat
othoy ama eztia
Ararteco leyal eta

neure aiutaria.

14)

Otoi, zeure babespian
har arima tristia
ordu hartan jo ez dezan
infernuko bidia.
Zeure seme jaunarekin
egidazu bakia
bekatuak barkaturik
lor dezadan gloria.

15)

Eta ikus dezadan han
zure begitartia
eta lauda santuekin
haren maiestatia
ze, zu ongi oroitzeko
nitaz, ama eztia
gogo onez esango dut
beti Ave Maria.
Eta otoitz hau diona
Andre Dona Maria
otoi, zeure dagizula
hila eta bizia.

neure ayutaria.

Othoy çure gomenduyan
har arima tristia
Ordu hartan io ezteçan
yfernucò vidia
çure seme iaunarequi
eguidaçu baquia
Beccatuyac barqhaturic
didan parabiçuya.

Eta nic han dacusadan
çure veguitartia
Eta saynduyequi lauda
haren magestatia
Ceren unsa orhit ziten
niçaz ama eztia
Gogo honez erranen dut
çuri ave maria.
Oracione haur derrana
andre dona maria
Othoy gomendatu duçun
hila eta vicia.

AMOROSEI OHARRA

1)
*Bestek besterik gogoan eta
 nik Andre Dona Maria.
 Andre ona dakigula
 denoi ongi balia.*

2)
 Amorosek nahi nuke
 honat beha balite
 ohar on bat beharbada
 adituko lukete.
 Amore bat hautatzeko
 aholku bat nieke
 baldin betiko gogoan
 sartu ahal balekie.

3)
 Nik neuk ere ukan ditut
 zenbait ere amore
 baina handik ez dut jaso
 probetxurik bat ere.
 Anitz pena, gal arima
 bai neure eta bere
 amoretan plazer baten
 mila dira dolore.

4)
 Amoretan ba ote da
 leiala den alerik
 hitz ederrez edo ioiaz
 mudatuko ez denik?
 Hoberena uste dena
 traidorea maizenik
 hoberena da txarrena
 arimentzat bederik.

Amorosen gaztiguya

*Bercec berceric gogoan eta
 nic andredona maria
 Andre hona daquigula
 guciior othoy valia.*

Amorosac nahi nuque
 honat vaha valite
 Hon liçaten gaztiguric
 aguian enzun liroyte
 Amore bat hautaceco
 conseylu bat nequeye
 Balinetan seculacoç
 gogoan sar valequie.

Nihaurc ere uqhen dicit
 ceynbayt ere amore
 Bana hantic eztut uqhen
 provechuric batere
 Anhiz pena arima gal
 harena eta neuryere
 Amoretan plazer baten
 mila dira dolore.

Amoretan othe date
 leyal denic batere
 Hiz ederrez ezpa ioiyaz
 mutha eztadin hura ere
 Hoben uste duyenori
 anhicetan traydore
 Hobena date gayzenic
 arimaren berere

5)
Bekatuzko amorea
beti baita traidore
herioa etortzean
egia han dagoke.
Hartu duten plazer oro
joana da buelta gabe
bekatua gelditzen da
penatzeko gero ere.
Anitz plazer ukan badu
anitz behar dolore.

6)
Amore bat nahi nuke
huts gabeko egia
bizi eta hilez gero
hain lekidan balia.
Halako bat zerbitzatuz
nahi nuke bizia.
Hemen labur da bizia
betirako bestia.

7)
Mundu oro iraganik
ez aurkitzen besterik
Jainkoaren ama baizik
grazia oroz beterik.
Haren amore izateko
ez dago inor duinik.
Ongi zerbitzen badugu
hark gu maite bertarik.

8)
Amoreak hutsal dira
hartaz beste guztiak
beharren ditugunean
faltatuko bestiak.
Uste baino lehen hiltzen
gara bekatariak
hark laguntzen ez bagaitu
egina du guriak.

Beqhatuzco amoria
bethi date traydore
Erioa dauginian
eguia çogueri date
Hartu duten plazer oro
orduyan yragan date
Beccatuya gueldicen da
penaceco guero ere
Anhiz plazer uqhen badu
anhiz vehar dolore.

Amore bat nahi nuque
liadutanic eguia
Vici eta hilez guero
hayn laquidan valia
Cerbiçatu nahi nuque
halacoa vician
Heben labur vicia da
iagoyticoz bercia.

Mundu oro iraganic
ez eriden berceric
Ieyncoaren ama hona
gracia oroz betheric
Haren amore içateco
ezta ehor digneric
Unsa cerbiça daçagun
mayte guitu bertaric.

Amoriac vano dira
harçaz berce guciac
Behar handien denian
faltaturen berciac
Uste bano lehen guira
hilcen beqhatoriac
Harc ayuta ezpaguïça
nola guiren galduyac.

9)
Andre ona har dezagun
denok geure amore
beste denak utzi eta
hari egin ohore.
Hala egin badezagu
ohoredun gu ere.
Bestengatik, hura gabe
oro galdurik gaude.

10)
Jaunaz beste, mundu orok
ez du balio hainbat
zeru-lurrak, itsasoa
haren mende erabat.
Behar bada, orotara
hedatzen eskua hark.
Bera handi izan arren
maite ditu txikiak.
Halakoa utziz gero
nor dukegu beste bat?

11)
Beste maiteak batentzat
baizik ez dira prestu
nork berea besteari
partitu nahi eztu.
Ama birjin loriosa
hain delarik konplitu
denentzat da leial eta
denak asetzen ditu.

12)
Amorosek badagite
behin beren nahia
handiago datorkie
beste nahikaria.
Ezin ukan inoiz ere
konplimendu askia
beti faltan daramate
euren mende guztia.
Andre eta gizon orok
har amore Maria
hark emango digu denoi
konplimendu garbia.

Andre hona har daçagun
oroc gure amore
Berce oro uci eta
eguin hari ohore
Hala eguin vadaçagu
ohoratu guirate.
Bercegatic hura gabe
oro galdu guirade.

Ieyncoaz landan mundu oroc
eztu hanbat valia
Ceruya lurra ychassoa
haren peco gucia
Orotara hedacen du
vehar vada escuya
Bera handi içan arren
preciacen chipia
Halacoa uci eta
non duquegu bercia.

Berce amoreac baten veci
eztirade perestu
Norc beria berciari
eztu nahi partitu
Ama virgen gloriosa
hanbat vada conplitu
Ororençat bera bayta
leyal dela abastu.

Amorosec badaguite
vehin bere nahia
Handiago giten çaye
berce nahicaria
Eci uqhen behinere
bere conplimenduya
Bethi peytu deramate
bere mende gucia
Emazte eta guiçon oroc
har amore maria
Eta orori vaytequegu
berac conplimenduya.

13)
Andre onak ederrenen
artean du grazia
inork hura gaizteriaz
ezin dezan desia
baizik bista hutsez hiltzen
zure gurari lohia.
Irudia ikusteaz
badakizu egia.

14)
Itsasoan ur guztia
zeruetan izarra
oihanetan itzala eta
lur guztian belarra
egunari eguzkia
gau beltzari iluna
lehen dira faltatuko
hura baino gugana
baldin eta egiazki
gu bagaude hargana.

15)
Nola gara honen ero
bekatari gaizoak?
Andre leial honengana
eman, otoi, pausoak!
Beude, otoi, bazterrean
beste amore faltsuak
harrekin segur ditugu
diren beharrezkoak.

16)
Hain bizi haiz engainuan
oi, amoros gaizoa!
Erokerian daramak
heure mende osoa.
Baldin ez bazaik balios
ene andere gozoa
bai bizitzan, bai hiltzean
beti galdurik hoa.

Andre honac uqhen dici
ederretan gracia
Ehorc hura gayxteriaz
ecin leqan inbia
Bana vistaz hilcen quyen
nahicari saxuya
Figuraren eqhustiaz
daqunquecu eguia.

Ychassoan hur gucia
ceruyetan iqarra
Oyhanetan iqalori
lur gucian velharra
Egunari yguzquia
gau belqari ilhuna
Lehen faltaturen dira
eci hura gugana
Balinetan eguiazqui
gu bagaude hargana.

Ceren bada erho guira
gayxo beqhatariac
Andre leyal honegana
goacen othoy guciac
Elas othoy aribira
berce amore falsuyac
Harequila segur dugu
vehar dugun gucia.

Elas amoros gaixoa
hire enganatuya
Erhogoatan badaramac
eure mende gucia
Ene andere graciosa e
zpadaquic valia
Bay bician bay hilian
bethi oha galduya.

17)

Denbora duan artean
egik ahal den ongia
herioa hurbiltzean
miraz dukek astia.
Nahi baduk hartan ere
izan ongi jalgia
gomenda hadi ongi hari
nik dioat egia.
Hark finean ere ez dik
galtzera uzten beria.
Hantxe ere eskuan dik
zernahitako grazia.

18)

Mundu honek engainua
dakar anitz jenderi
betirako bizi ustez
dabiltza haren sehi.
Gutxi uste denean hark
bizkar eman deneri
jokalari eroa da
hartan fida baledi.

19)

Ni neu ere ibilia naiz
anitzetan erorik
egun argiz, gau ilunez
hotzik eta berorik.
Loa galdu, penak bildu
baina ez arimagatik.
Hobe nuke izan balitz
dena Jainkoagatik.

20)

Ni bezala anitz duzu
mundu zabal handian
bizi oroz dabilena
beti banalorian.
Ohar bedi nor bereaz
denbora den artian.
Andre onak har gaitzake
bere esku agian
hain delako graziosa
ama ororen gainian.
Datorrenik ez du uzten
hartu gabe grazian.

Dembora duyan artian
eguiç ahal honguia
Eryoa dauginian
miraz duquec orduya
Orduyan ere nahi vaduc
onsa ialgui daguia
Onsa hari gomendadi
nic diossat eguia
Finian ere eztic uzten
harc galcera veria
Orduyan ere vere escuyan
dic gracia gucia.

Mundu honec anhiz gende
enganatu darama
Iagoyticoz vici ustez
haren sehi dabilça
Guti uste duyenian
ehor vci darama
Erho ioqhatuya date
hartan fida dadina.

Nihaur ere ebili niz
anhicetan erhoric
Gaoaz eta egunaz ere
hoçic eta veroric
Loa galdu pena asqui
bana ez arimagatic
Oray oro nahi nuque
liren ieyncoagatic.

Ni beçala anhiz duçu
halacoric munduyan
Mende oro dohatenic
bethi vanaglorian
Ohart guiten buruyari
denbora den artian
Andre honac har guiçaque
gomendutan aguiian
Hanbat bada graciosa
ama ororen gaynian
Gin dadinic eztu uzten
hartu gabe gracian

21)
Egia da kulpa gabe
segur inor ez dela
Jaungoikoak bekatua
zigortzen du horrela.
Zugan ez da, Andre handi
bekaturik sekula
ararteko zu izanik
Jaunak barka deigula.

22)
Bekatarien salbamen
Jaunak egin zintuen.
Bere burua egin du
juje justiziaren
horrela zu izateko
babes errukiaren
nola haiek justizian
ezin salba zitezken
zure erruki horren bidez
onik jalgi zitezen
baldin zuri egiazki
gomendatzen baziren.

23)
Egundaino ez da izan
ez izaneren iagoitik
bekatari hain handirik
ezta ere satsurik
bere bidean jin bada
zuri gomendaturik
barkatua izan ez denik
zure amoregatik.
Ez da galdu, ez galduko
zure magalekorik.
Zuri gara gomendatzen
hilik eta bizirik.

24)
Beste andreak ama dira
zenbait haurtxo txikiren
eta gehiago ezin dute
dontzeila izan ondoren.
Zu, Andere, birjinarik
ama zara Jainkoaren
eta geroz erregina
zeru eta lurraren.

Culpa gabe ehor ezta
haur da segur eguia
Beqhatuyaz damnacen du
iangoycoac munduya
Beqhaturic ezta yčan
çutan andre handia
Ararteco çaquizcula
digun varqhamenduya.

Beccatoren salvaceco
ieyncoac eguin cinducen
Bere buruya eguin dici
iuge iusticiaren
çu misericordiaren
refugio cinaden
Nola berac iustician
ecin salva liçaque
çure misericordiaz
remedia litecen
Balinetan eguiazqui
çugana gin valite.

Egundano ezta yčan
ez içanen iagoytic
Beqhatore hayn andiric
ezetare saxuric
Bere bidian iauguin vada
çuri gomendaturic
Uqhen eztuyen barqhamendu
çure amorecatie
Ez galdu da ez galduren
çure gomenducoric
çuri gomendacen guira
hilic eta viciric.

Berce emaztiac ama dira
cenbayt haurto chipiren
Eta guero obororic
puncela ecin dirate
çu anderia ama cira
virginaric ieyncoaren
Eta gueroz erreguina
ceru eta lurraren.

25)
Jainkoa jaun den ooren
zu zaitugu andere
arrazoiz du mundu orok
zuri egiten ohore
zeren hala ari zaigu
Jesu Kristo bera ere.
Mundu orok ere ez du
zuk hainbat dignitate.

26)
O, Andere, ezin da izan
inor zure berdinek.
Gainekorik ez daukazu
Jainko beraz besterik.
Jainko ez den beste oro
dago zure azpitik
Jainkoaren ama zara
mundu oroz gainetik.

27)
Mundu orok ez du egin
Jaunagatik zuk hainbat
eta orogatik baino
gehiago zugatik hark.
Bere ama ezin utzi
men egin gabe berak.
Grazia, otoi, egiguzu
izan gaiten zuenak.

28)
Zuk banauzu gogoz hartzen
zeure gomendupeko
ezin damna naitekela
segur naiz sinesteko.
Zenbat zaindu izan duzun
galtzer zirenetako!
Lagun, otoi, neuri ere
galdu baino lehenago.

29)
Inon ere ez da gaitzik
zuk ezin kentzekorik
ezta ere ontasunik
zure eskuan ez denik.
Denbora eta leku orotan
ezein duda gaberik
grazia oro zuk daukazu

Ieyncoa iaun den gauça ooren
çu cirade andere
Arrazoyn da mundu oroc
daguien çuri ohore
Eci hala ari çauçu
Ihesu christo vera ere
çuc beçanbat dignitate
mundu oroc eztuque.

O anderia ecin date
ehor çure vardinic
Gaynecoric çuc eztuçu
ieynco veraz berçeric
Ieynco ezten verce oro
dago çure azpitic
Ieyncoaren ama cira
mundu oroz gaynetic.

Mundu oroc eztu eguin
çuc beçanbat hargatic
Orogatic bano oboro
harc ere daydi çugatic
Bere ama ecin uci o
beditu gaberic
Othoy gracia eguiguçu
guiren çuyenetaric.

Vnsa çuc har banençaçu
gomendutan gogotic
Ecin damna nayndeyela
cinesten dut segurqui
Anhiz veguiratu duçu
galduren cenetaric
Niri ere hel çauçiçat
othoy galdu gaberic.

Ehon ere gayzic ezta
çuc qhen eztiroçunic
Ezetare hontassunic
çure escuyan eztenic
Denbora eta leqhu orotan
ecyn duda gaberic
Graciac oro çure escuyan

Jaungoikoak emanik.

30)

Nahi duena hala dauka
semeagandik amak
bere amaren maitez anitz
egiten seme onak.
Gure natura hartu du
zutaz xarmatu zenak
gure haurride izatea
dauka zugatik Jaunak.

31)

Haren eta gu guztion
ama duina zara zu
haurren arteko gerlarik
amak sufritzen ezdu.
Gure txarkeriengatik
haserre badakusu
denon ama zara eta
laster bake gaitzazu.

32)

Orain egiten diraden
gaizki handien partez
lur guztia hondatua
zukeen Jaunak berez
zu gugatik ararteko
jarri ez bazina prest.
Denok gaitu sostengatzen
zure otoitzen bidez.
Gu gaiztoak izan arren
zuk ez hutsik, mesedez!
Hel gaitzazu fin onera
salba gaitezen onez.

33)

Ama ezti, nik badagit
zure kontra faltarik
zuk gaztiga eta gida
nazazu, otoi, bertarik.
Nora ihes egin daiket
zu neure ama lagarik?
Neuretako ez dazagut
zu nolako amarik.

iangoycoac emanik.

Nahi duyena hala duque
amac semiaganic
Seme honac anhez daydi
amaren amorecatic
Gure natura haritu du
çutan amatoruric
Iangoycoa ezarri duçu
gure anayeturic.

Haren eta gure ooren
ama cira digneric
Amac eztu sofriceco
semen artian guerlaric
Samurturic badacuxu
gure gaizquiegatic
Ooren ama cira eta
baque guiçaçu bertaric.

Oray eguiten diraden
gayzqui handiegatic
Ieyncoac ondatu çuqueyen
lur gucia engoytic
Balinetan çu ezpacina
ararteco gugatic
Oro sostengacen guitu
çure othoyegatic
Gu gayxtoac içan arren
ezten çutan faltaric
Fin honera hel guiçaçu
guiren salbuyetaric.

Ama ezti nic badaguit
çure contra faltaric
çuc gaztiga eta dreça
naçaçu othoy bertaric
Elas norat ihes naydi
çu neure ama vciric
Neuretaco eztaçagut
çu nolaco amaric.

EMAKUMEEN ALDE

1)
*Andregatik ez gaitz esan
 ene amoregatic!
 Gizonek utz balitzate
 ez lukete faltarik.*

2)
 Anitz gizon ari bada
 andrez mintzatzen gaizki
 edo haien aipu egiten
 arinki, desoneski
 isilkan gelditurik
 leudeke, bai, hobeki.
 Andrek hutsik ezin dute
 ez bada gizoneki.

3)
 Zuhur gutxik andregatik
 gaizki esango dute.
 Haiez ongi mintzatzea
 onestago litzake.
 Zergatik da maiseogai
 andre edo emazte?
 Handi eta txiki oro
 haiek sortzen gaituzte.

4)
 Balentia sinplea da
 andrez gaitz esatea
 bat gaitzetsi nahi bada
 denak berdin nahastea.
 Isil dadin nahi nuke
 halako den guztia.
 Zorigaitzez eman zion
 andre batek titia!

5)
 Andren gaitz-esale orok
 behar luke pentsatu
 bera eta beste oro
 nondik ginaden sortu.
 Ama andre den ala ez
 nahi nioke galdetu.
 Amagatik andre oro

Emazten fauore

Emaztiac ez gayz erran
 ene amoregatic
 Guiçonec uci valiçate
 elaydite faltaric.

Anhiz guiçon ari bada
 andrez gayzqui errayten
 Arhizqui eta desonesqui
 baytituzte aypacen
 Yxilica egoytia
 ederrago liçate
 Andrec guiçonequi beci
 huxic ecin daydite.

çuhur gutic andregatic
 gayzqui erran diroyte
 Hayez hongui erraytea
 onestago liçate
 Emazteac cerengatic
 gaiz erranen dirate
 Handi eta chipi oro
 hayetaric guirade.

Balentia sinplea da
 andren gayz erraytea
 Bat gayz erran nahi vadu
 oro vardin sarcea
 Yxil ladin nahi nuque
 halaco den gucia
 Damu gaycic emazteac
 hari eman dithia.

Andren gayz errayle oroc
 bear luque pensatu
 Bera eta verec oro
 nontic guinaden sorthu
 Ama emazte luyen ala ez
 nahi nuque galdatu
 Amagatic andre oro

<p>behar luke goratu.</p> <p>6) Gizonaren probetxua emazteak beti du oro behin munduratzan gara haiengandik gu. Sortu eta hilak ginen hark hazi ez bagindu haziz gero egunero behar gaitu lagundu.</p> <p>7) Sano dela, hark darama jantzia eta jana eri dela, andre gabe galdu gizon hebaina. Hiltzean, andrea ez bada nor joango hargana? Ordu oroz behar dugu ez gaitela engana.</p> <p>8) Andrerik ez den lekuan ez dakusat plazerik ez gizona, ez etxea ez deus ere garbirik. Etxean den gauza oro gaizki antolatutik ez nuke nahi zeruratu han ez balitz andrerik.</p> <p>9) Ez dut entzun emazteak lehen eraso gizonik bai gizonen emaztea beti ere lehenik. Txarkeria sortzen baita beti gizonetarik! Nola egozten zaie, bada emazteei errurik?</p> <p>10) Bertutea behar luke gizonak handiago andreengan nik dakusat ongiz ere gehiago. Mila gizon gaiztorik da emazte batendako gizon baten mila andre</p>	<p>behar luque goratu</p> <p>Guiçonaren provechuco emaztia bethi da Oro behin hayetari sorcen guira mundura Sorthu eta hil guinate harc haz ezpaguiniça Haciz guero egun oroz behar haren ayuta.</p> <p>Haren escuz ossoan behar soynera eta iatera Eri denian andre gabe galdu guiçon egurra Hil badadi hura nola nor doaque gaynera Ordu oroz behar tugu ezta heben cer duda</p> <p>Emazteric ezten lecuyan eztacusat plazeric Ez guiçona ez echia behinere xahuric Echian den gauça oro gayzqui erreglaturic Parabiçuyan nahi enuque emazteric ezpaliz.</p> <p>Emaztiac ez tut ençon lehen guiçona iauquiric Bana guiçonac emaztia bethi ere lehenic Gayxteria ialguiten da bethi guiçonetaric Ceren bada daraucate emaztiari hoguenic.</p> <p>Bertuteac vehar luque guiçonetan handiago Emaztetan nic dacussat honguiz ere guehiago Mila guiçon gayxtoric da emazte batendaco Guiçon baten mila andre</p>
---	---

<p>bere fedean dago.</p> <p>11) Gizonen araura andre bat ez legoke onik ezin dute zerbait denik utzi eraso gaberik. Baina anitz emazte da eskapatzen zaienik andreengan bertutea delako hoberenik.</p> <p>12) Nik ez dantzut emazteak bortxaturik gizona bai gizona andreari zoroki darraiona. Zenbait andre maitekiro hel baledi hargana zein gizoni zaio hori iruditzen iraina?</p> <p>13) Jaunak maite du andrea mundu oroz gainetik zerutikan jaitsi baitzen hartaz amaturik. Andreak du jarri bera gure haurride eginik andre oro laudatzeko haren amoregatik.</p> <p>14) Irudi zait emaztia dela gauza eztia donario guztietan gutziz gauza emia. Gaez eta egunez ere badu plazer handia. Hartaz gaizki esatia bai dela bilania!</p> <p>15) Mundu hontan ez da deusik hain eder, ez plazentik nola andre bat gizonaren petik biluz-gorririk. Beso biak zabaldurik dago errendaturik gizon horrek egin dezan</p>	<p>bere fedean dago.</p> <p>Hec guñoner veba valite eliçate bat honic Eztiroyte deuscay denic uci iauqui gaberik Bana anhiz emazte da escapacen çayenic Anderetan ceren bayta vertutea hobenic.</p> <p>Nic eztañçut emaztiac borchaturic guñona Bana vera çoraturic andriari darrayca Cenbayt andre hel baledi oneriztez hargana Ceyn guñonec andriari emayten du oguena.</p> <p>Ieyncoac emaztea mayte mundu oroz gaynetic Cerutica iayxi cedin harçaz amaturic Emaztiac eçarri du gure anayeturic Andre oro laudaceco haren amorecatic.</p> <p>Irudi çayt emaztia dela gauça eztia Donario gucietan guciz gauça emya Gaoaz eta egunaz ere badu plazer handia Harçaz gayzqui erraytia vilania handia.</p> <p>Munduyan ezta gauçaric hayn eder ez placentic Nola emaztia guñonaren petic buluzcorreric Beso viac çabalduric dago errendaturic Guñonorrec daguiela</p>
---	---

hartaz nahi duenik.

16)

Jo badeza dardoaz ere
gorputzaren erditik
aingeruak baino haboro
ez lerrake gaizkirik.
Baina dardoa ematurik
zauria sendaturik
bere graziaz jartzen ditu
elkarrez baketurik.

17)

Nor da gizon ergel hori
hartaz oroit ez dena
eta gero halakoaz
gaizki esaten duena?
Ez da gizon naturala
hola diharduena.
Zergatik ez du aitortzen
ongi egin dutena?

harçaz nahi duyenic.

Io badeça dardoaz ere
gorpuzaren erditic
Aynguruyac bano oboro
ez larraque gayzquiric
Bana dardoa ematuric
çauriere sendoturic
Bere graciaz ezarteyntu
elgarrequi vaqueturic.

Nor da guiçon modorroa
harçaz orhit eztena
Eta guero halacoa gayz
errayten duyena
Ezta guiçon naturazco
hala eguiten duyena
Ceren eztu eçagucen
hala hongui eguina.

EZKONDUEN KOPLAK

1)

*Ene Jainko, ken zuk nire
gogotik besterena!
Gatiba da bera eta
ni gatibu harena.*

2)

Ni gatibu naukan hura
gatiba da besteren
nire ditxak hala egin nau
ni gatibu bigaren.
Gogo onez izango naiz
bizi banaiz, bataren
baina bortxaz baizik ez naiz
izango bestearen.

3)

Besterena har dezanak
beretzako amore
gehiagotan izango du
plazer baino dolore.
Elkartzeak bakan eta
beldurrez dirateke
gutxi uste dutenean
gaitza han sor daiteke.

4)

Besterena maitatzea
hain da erokeria
plazer baten ordeaz duke
anitz malenkonía.
Begiz ikus, ezin mintza
zer ondoez handia!
Bereakin datzanean
niretzat ainkuria.

5)

Arriskuan baizik ezin
ni harengana joan
eta agian hark astirik
ez ukan halakoan.
Badu ere, beldur baita
atzera egin behingoan
nik nahien dudanean

Ezconduyen coplac

*Iangaycoa edetaçu
vercerena gogotic
Bera captiva da eta
ni gathibu hargatic.*

Ni gathibu naducana
captiva da berceren
Ene dichac hala egin du
ny gathibu bigaren
Gogo honez içaneniz
vicy baniz bataren
Bana borchaz bayecila
ez iagoytic verciaren.

Bercerena har daçanac
beretaco amore
Oborotan uqhenen du
plazer bano dolore
Baçarriac veqhan eta
veldurrequi dirate
Guti uste dutenian
gayça bertan sor dayte.

Honestea bercerena
erhogo handi da
Plazer vaten uqhenen du
anhiz malenconía
Beguyez icus ecin minça
han dacusat nequia
Beryarequi daçanian
enetaco aycia.

Perilequi bayecila ecin
noaque hargana
Eta aguian harc orduyan
ezpaytuque aycina
Badu ere veldur date
vertan doha harçara
Nic nahyen dudanian

bestek dauka besoan.

6)
Soro hartan hel badakit
hazia ereitea
eta neure bada ere
lasto eta alea
ez bat hori ahalko dut
ezta ere bestea.
Lan eginez, esker txarra
galdu irabaztea
besterentzat gelditzen da
nire eskubidea.
Gero agian alabakin
ezkonduko semea!

7)
Amorea inork ere
ez du nahi partekatu
Nik ez dakit bestek, baina
badut hortan bekatu.
Bereakin ikustean
hainbat ohi naiz penatu!
Haiek jolas, nik bihozmin
eta errabiatu.

8)
Jesloskorrez ezingo naiz
hasi gaizki esaten
ez nuke nahi neuk maitatzen
dudana uki lezaten.
Besterenaz amoratu
izan naiz leku baten
eta bereaz jelostuz
desesperatzer nintzen.

9)
Amorea ezein zentzuz
ez daiteke goberna
anitzetan maitatzen du
gutxien behar dena.
Ardoz baino gaizkiago
mozkortzen du pertsona
fite lotu, berant aska
hark atzeman dezana.

berceç bessoan daraça.

Alhor hartan hel badaquit
ereytera hacia
Eta ene vada ere
lastoa eta vihia
Ez bat ori ahal duquet
ezetare vercia
Lan eguinaz esquer gayxto
galdu yrabacia
Bercerenzat gueldicen da
ene çucenbidia
Aguyan guero alabarequi
ezconduco semya.

Amoria ehorc ere
eztu nahi partitu
Nic eztaquit berciac vana
ny ary niz beqhatu
Beriarequi eqhustiaz
hayn hayn noha penatu
Hec dostetan ni nequetan
orduyan errabiatu

Gelosiac eztiçaquet
nic gayz erran seculan
Mayte nuyena nahi enuque
ehorc hunqui liaçadan
Bercerenaz yçanuçu
amoros leqhu batetan
Beriagana gelosturic
desesperacer ninzan.

Amoria ecyn ceñuz
ecin dayte goberna
Anhicitan honesten du
guti vehar duyena
Arnoac vano gayzquiago
ordi diro persona
Sarri estaca berant lacha
harc hazeman deçana

10)

Amorea itsua da
zuzenik ez dazagu
ez du uste inor denik
maite duena salbu.
Suak baino gaizkiago
gizona erre ahal du
itsasoak ezin itzal
hartaz su hartu balu.

Amoria ixe da eta
eztaçagu çucena
Eztu uste berçeric dela
lecot mayte duyena
Suyac vano gayzquiago
erra diro guiçona
Ychassoac ez yraungui
erachequi dadina.

EZKUTUKO AMOROSA

1)

Andre eder jentil batek
 bihotza dit ebatsi
 hartaz oroit nadinean
 ezer ezin irentsi.
 Nik nola hura nahi nuke
 hark ni nazan onetsi.
 Nago ezin ausarturik
 beldur dakion gaitzi.

2)

Ispilu bat ahal banu,
 zeinak luken dohaina
 neure gogoa askatzeko
 sekretuki han barna
 eta bertan ikusteko
 harena ere nigana
 hutsik ezin egin nezan
 nik sekula hargana.

3)

Ni hain gaizki penatzeko
 hain ederrik sortu zen
 gau eta egun hor ari naiz
 gaizkienik penatzen.
 Berarekin elkartzean
 bihotza zait harritzen
 neure penak esatera
 ere ez naiz ausartzen.

4)

Nire gogoa baleki
 maite bide ninduke.
 Ni errege banintz hura
 erregina litzake.
 Berak hala nahi balu
 elkarrekin geundeke.
 Haren eta nire haurrak
 haurride oso lirake.

Amoros secretugui dena

Andre eder gentil batec
 vihoça deraut ebaxi
 Harçaz orhit nadinian
 deusere ecin yrexí
 Nic hura nola nahi nuque
 harc banença onhexi
 Ecin venturatuz nago
 beldur daquion gayci.

Mirayl bat nic ahal banu
 hala luyen donoa
 Neure gogoa neracuxon
 secretuqui han varna
 Han veryan nic nacussen
 harena ere nigana
 Huxic ecin eguin neçan
 behinere hargana.

Ene gayzqui penaceco
 hayn ederric sortu cen
 Gaoaz eta egunaz ere
 gayzqui nici penacen
 Harequila bat banadi
 vihoça zayt harricen
 Neure penen erraytera
 are eniz ausarcen.

Ene gogoa balyaqui
 mayte vide nynduque
 Ni erregue valin baninz
 erreguina liçate
 Hura hala nahi valiz
 elgarrequi guinate
 Haren haurrac eta eniac
 aurríde osso lirake.

5)
Baldin agertzen badiot
hari neure bihotza
eta gero ematen badit
hark erantzun bortitza
barneraino sartuko zait
nola gezi zorrotza.
Duda gabe jausiko naiz
han berean hilotza.

6)
Artizarrak bestetarik
abantaila darama
halaxe da anderetan
ni penatzen nauena.
Hain da eder, hain atsegin
hain da ero naukana!
Dohatsu zen sortu haren
besoetan datzana.

7)
Ene gogo nola den
zuzen jarri hargana
harena ere Jaungoikoak
ekar beza nigana
ene pena sar dakion
bihotzean barrena
gogo onez egin dezan
desiratzen dudana.

Valinetan nic vanerro
hari neure vihoça
Eta guero valin balit
respuesta bortiça
Dardoac vano lehen liro
erdira ene vihoça
Duda gabe eror naynde
han berian hilhoça

Artiçarrac bercetaric
abantaila darama
Halaver da anderetan
ni penacen nuyena
Hanbat da eder eta gentil
harçaz erho narama
çori honian sortu date
haren bessoan daçana.

Ene gogo nola vayta
çucen iarri hargana
Harenere iangoycoac
dacarrela nygana
Ene pena sar daquion
vihocian varrena
Gogo hunez eguin daçan
desiracen dudana

AMORROSEN BANANTZEA

1)
*Banandurik ni hargandik
 hark ez luke parerik
 baina ezin dut, ez baitaukat
 hainbat maite dudarik.*

2)
 Amore bat maitatu dut
 guztiz soberatuki
 ene arima ta bihotza
 josi dira hareki.
 Irudi eder hori daukat
 begietan sakonki
 oroitu naiz hartaz eta
 bihotza zait ebaki.

3)
 Nik hura hain amodio
 zinezkoan dut maite
 non harekin egoteaz
 nekerik ez bainuke.
 Harengandik banantzea
 niretzat zer idorte!
 Berriz bera ikus arte
 beti penaz nagoke.

4)
 Elas, ene maite horrek
 nola nauzun penatzen!
 Ni zurekin ezin batuz
 gogoaz zait erretzen.
 Ni hain gaizki penatzeko
 munduratu al zinen?
 Penak oro on lirake
 zu bazina oroitzen.

5)
 Ni zurekin mintzatzeko
 gau bat gerta baledi!
 Hilabete joan eta
 gauak harago segi.
 Neure kexak kontatzeko
 asti izan luzeki
 eta ezein beldur gabe

Amorosen partizia

*Parti alhanenguidio
 harc ezluque pareric
 Alavana nic eziticit
 hayn hon deriçadanic.*

Amore hat onhexi dut
 guciz soberatuqui
 Ene arima eta vihoça
 iossi dira harequi
 Haren yrudi ederrori
 veguietan ehoqui
 Harçaz orhit nadinian
 vihoça doat ebaqui.

Nic hargana hanbat dicit
 amoryo handia
 Harequila egoytiaz
 ezpaneynde enoya
 Harganico particia
 ene eyhargarria
 Berriz icus dirodano
 bethi malenconia.

Elas ene amoria
 nola nuçun penacen
 Çurequila ecin vathuz
 vihocian erracen
 Ene gaizqui penaceco
 segur sorthu cinaden
 Penac oro hon lirate
 çu bacina orhicen.

Minzaceco çurequila
 gau bat nahi niqueci
 Hilabete conplituric
 hura luça valedi
 Arranguren qhondaceco
 asti nuyen frangoqui
 Eceyn ere veldur gabe

lasai egon zureki.

6)
Orain ongi frogatzen dut
dakitenen esana:
Inork utzi ez dezala
eskuetan daukana.
Ai, ahal banu itzularaz
denbora iragana!
Segur orain ez nukela
bihozmin hau dudana.

7)
Denbora hartan ohi nuen
nik zugatik dolore
orain aldiz zure faltaz
mudatzeko dut hobe.
Ez tristatu, ze izango
duzu norbait amore
baina ordu bazenuke
zentzatzeko zeuk ere.

8)
Badakizu, dolorean
partaide naiz ni ere.
Ez nuen zu mudatzeko
nik errurik batere.
Penaz bizi nendin hartu
baitzintudan amore
orain beti beharko dut
nik zugatik dolore.

egoyteco çurequi.

Oray porogacen dicit
daquitenen errana
Ehorc vci eztaçala
escuyetan duyena
Elas yzul albaneça
yragan den denbora
Segur oray enyqueci
dudan gogoan veharra

Denbora hartan ohi nicin
nic çugatic dolore
Oray aldiz çure faltaz
muthatu niz ny ere
Malenconya ecitela
vaduqueçu amore
Bana ordu vacindunque
cençaceco çuc ere.

Badaquiçu doloryan
partayde nyz ny ere
Eta çure muthaceco
ez oguenic batere
Neure gayzqui penaceco
har cinçadan amore
Iagoyticoz uqhenen dut
nic çugatic dolore.

AMOROS JELOSKORRA

1)

*Beti penaz izatea
gaitz da, ene amore.
Betirako behar al dut
nik zugatik dolore?*

2)

Amore bat ukan dizit
miragarri jentilik
berarekin nintzanean
ez bainuen faltarik.
Honez gero ezin nuke
hura bezain maiterik
haren minez hemen nabil
ezin hilez bizirik.

3)

Nork aldatu dio zerbait
nire amoreari?
Garbi ez dakit zer den baina
sail berrian da ari.
Ohi gisan ez dit hitzik
egin nahi aspaldi.
Zerk andere-hantu duen
jakin behar dut sarri.

4)

Solas bat nahi dut harekin
sekretuki egina
bertan etsai ala bake
egin betiko zina.
Zuzen ez badit egiten
arinoa bedi jina!
Nik uste dut banaizela
harentzako adina.

5)

Oi, amore, nor izan da
gure bion artian
mudaturik baitzabilza
iragan aspaldian?
Nik ez dizut, dakidala
hutsik egin bizian
biok behingoz sekretuki

Amoros gelosia

*Beti penaz yçatia
gayz da ene amore
Beti ere vehar duta
nic çugatic dolore.*

Amore bat uqhen dicit
miragarri gentilic
Harequila ninçanian
enuyen nic faltaric
Nic iagoytic ecyn nuque
hura veçayn mayteric
Haren minez oray nago
ecin hilez viciric.

Norcbayt ere amoria
niri daraut muthatu
Nic eztaquit cer den vana
estamendu verri du
Ohi nola aspaldian
nahi eçayt minçatu
Cerq anderehantu duyen
vehar dicit galdatu.

Secretuqui vehar dicit
harequila minçatu
Ordu hartan iagoyticoz
exay ezpa vaquetu
Nyri vnsa ezpadaguit
vehar dicit pintatu
Ene buruya ciaydaçu
harendaco abastu.

Amoria nor yçan da
gure bion artian
Muthaturic vaçabilça
ia aspaldi handian
Nic çugana daquidala
faltatu eztut vician
Bioc behin secretuqui

nonbait mintza gaitian.

6)

Inon ere ez dakusat
ni nolako erorik.
Nik norgatik pena dudan
hark ez du ene axolik.
Zuhur banintz, neu ere izan
ninteke hura gaberik
baina ezin utzi joaten
inoiz neure gogotik.

7)

Jende onak, bihotza dut
eten gabe negarrez
neure amore ederra
galdu dudan beldurrez.
Gaez lorik ezin egin
haren goganbeharrez
susmo handi baitut bete
ote nauen adarrez.

8)

Ene Jainko, ken zaidazu
amore hau gogotik
eta haren irudia
nire begietatik.
Hark nigana ez baitauka
ongi leialtaterik
neu ere orain elikatu
naiteke hura gaberik.
Saroia da lohitu eta
ez dut haren beharrik.
Nahi badut, ukanen dut
orain ere berririk.

nonbait mynça guitian.

Ehon ere eztacussat
nihaur veçayn erhoric
Nic norgatic pena vaytut
harc ene eztu axolic
Çuhur banynz banynçande
ny ere hura gaberik
Alabana ecin uci
vehin ere gogotic.

Gende honac vihoça daut
bethiere nygarrez
Neure amore chotiltua
galdu dudan veldurrez
Gaoaz loric ecin daydit
haren gogoan veharrez
Gogoan vehar handi dicit
bethe nuyen adarrez.

Iangoycoa edetaçu
amoria gogotic
Eta haren yrudia
ene veguietatic
Harc nigana eztaduca
unsa leyaldateric
Ni ere elicaturenyz
oray hura gaberik
Saroya da lohitu eta
eztut haren veharrik
Nahi badut uqhenen
dut oray ere berririk.

POT BATEN ESKEA

1)
 Oi, andrea, Jaunak lagun!
 Orain berdin girade.
 Ni errege baldin banintz
 erregina zinake.
 Pot bat, otoi, egidazu
 ez zu izan herabe.
 Zugatiko nire penek
 hainbat merezi dute.

2)
 – Eia, horra apart hadi!
 Nor uste duk naizela?
 Holakorik bat ez diat
 nik ikusi sekula.
 Damu bekik niri horren
 hitz gaiztoak esana!
 Mintza hola beste bati
 ez nauk uste duana.

3)
 – Andre gaiztoa bazina
 ez nuke zer esanik
 zaren-zarena baitzara
 zutaz pena daukat nik.
 Neure ustez ez dut esan
 desonest den gauzarik.
 Pot bat niri egin arren
 ez zenuke laidorik.

4)
 – Hire potak bazakiat
 beste zerbait nahi dik.
 – Anderea, azti zara
 nik deus esan gabarik.
 – Bada, utzi nazak orain
 gai hoietaz isilik.
 – Horren zaila nola zaren
 egingo dut besterik.

Potaren galdacia

Andria ieyncoac drugaçula
 oray verdi guirade
 Ni erregue balin banynz
 erreguina cinate
 Pot bat othoy eguidaçu
 ezayçula herabe
 Nic çugatic dudan penec
 hura merexi dute.

Eya horrat apart adi
 nor uste duc niçala
 Horlaco bat eztuc uste
 nyc icussi dudala
 Horrelaco hiz gaixtoric
 niry eztarradala
 Vercer erran albaytiça
 enuc uste duyana

Andre gaixtoa bacinade
 nic eznyaydi conducic
 Ciren cirena baycira
 çuçaz pena dicit nic
 Ene ustian eztut erran
 desonesta den gauçaric
 Pot bat niri eguinagatic
 ecinduque laydoric

Hire potac bacyaquyat
 berce gauça nahi dic
 Anderia azti cira
 nihaurc erran gaberic
 Bada uci albaynençac
 ny holacoz yxilic
 Horreyn gayz ciraden guero
 eguinen dut verceric.

5)

Bizi naizen egunetan
ez baitzaitut lagako
nahi dudana orain bertan
duzu egin beharko.

– Uste diat ez haizela
mintzatu burlarako.

Gizon honek orain al nau
hemen laidoz beteko?

Oihu edo zer dezaket?

– Isil zaitetz betiko!

6)

Etai lelori bai lelo
pota franko, bestea bego.

Anderea, hurrengoan
egizu hitz emeago.

Vici nyçan egunetan
vada ecitut uciren
Nic cer oray nahi vaytut
heben duçu eguinen
Uste diat escuyarqui
eciçala burlacen
Guiçon hunec oray nuya
heben laydoz veteran
Eyagora nyc cer daydit
çau de yxilic hanbaten.

Etay lelory bay lelo pota
franco vercia vego
Andria minça albaycinde
verce aldian emiago.

AMORE ESKEA

- 1)
Benedika fortuna!
Bai hau enkontru ona!
Orain daukat begietan
desiratzen nuena.
- 2)
– Ene maite maitena
egidazu zuzena!
Ekardazu eramana
edo eman ordaina.
- 3)
– Nik dakidan gauzarik
ez daramat zurerik.
Beldurturik jarri nauzu
ez baitakit zertarik.
- 4)
– Ez zuk izan beldurrik
ez duzu arriskurik.
Gure auzian ez da izango
zutaz beste juerik.
- 5)
– Ez dut egin gaizkirik
izateko arriskurik.
Ezta ere nik zergatik
behar dudan auzirik.
- 6)
– Hara, neure maitia!
Nik diotsut egia.
Zuk lapurtu nauzu eta
neure bedi neuria.
- 7)
– Ez naiz lapur zekena
harrapan dabilena.
Orain, otoi, ez nadila
erru gabe difama.

Amorez errequericia

- Benedica fortuna
ala encontru hona
Oray beguetan dicit
desiracen nuyena.
- Ene mayte maytena
eguidaçu çucena
Ioan duçuna eqhardaçu
ezpa eman ordayna
- Nic daquidan gauçaric
eztaducat çureric
Loxaturic iarri nuçu
ezpaytaquit cegatic.
- Eztuçula veldurric
eztuqueçu perylic
Gure aucian ezta yçanen
çuhaur beci iuyeric.
- Eztut eguyn gayzquiric
uqheyteco perilic
Ezetare cerengatic
vehar dudan auciric.
- Vada neure maytia
nic dioxut eguia
Arrobatu nuçu eta
valia vequit neurya.
- Ny enuçu ohoyna
arrobaçer nyçana
Oray othoy enadila
oguen gabe difama.

8)
– Lapur handi, indartsu
niretzako zara zu.
Nik beharren nuen gauza
zeurekin daramazu.

9)
– Ni ez nauzu jakintsu
argiro hitz egizu
inork ongi adi zaitzan
nahi baldin baduzu.

10)
– Gizonaren maitena
baita ere onena
bihotzeko atsedena
eta bere lo ona.

11)
Orain ez daukat lorik
ez bihotz-atsedenik.
Bi horiek galdu ditut
nik, maitea, zugatik.

12)
Ongi neurtzen baduzu
gaizki lapurtu nauzu.
Zor handian zaude eta
zuzena egidazu.

13)
– Zernahi duzula galdu
zerena dut nik erru?
Nik dakidan lekutarik
nigana ez dira heldu.

14)
– Lehengo egun batetan
zeundela belarretan
hainbat zutaz amoratu
geroztik naiz penetan.

15)
– Mintzo erraza duzu
ero jartzen dakizu.
Zure pena diozunok
nonbait handi dituzu.

Enetaco ohoyn cira
ohoyn ere handi cira
Nic veharren nuyen gauça
daramaçu çurequila.

Ni enuçu iaquinxu
clarqui erran eçaçu
Ehorc unsa adi çiçan
nahi valin baduçu.

Guiçonac duyen maytena
bayetare hobena
Vihocico pausuya du
eta vere lo huna.

Oray loric ecin daydit
vihocian ez pausuric
Hayec biac galdu ditut
amoria nic çugatic.

Unsa pensa vadeçaçu
gayzqui arrobatu nuçu
çor handian çaude eta
othoy unsa eguydaçu.

Galdu valin badituçu
ceren oguen derautaçu
Nic daquidan leqhutaric
ni baytara eztituçu.

Oray egun vatetan
cenaudela pensetan
Hanbat çuçaz amoratu
gueroz nuçu penetan.

Horla erraytia errax duçu
erho bocen vadaquiçu
çure pena dioçunoc
nonbayt handi videytuçu.

16)
– Hainbat ditut, bai, handi
ezin azaldu ongi.
Egiazki bazenezki
zenidake erruki.

17)
– Pena handiz eri zu
baduzu aski mediku.
Laster zara sendatuko
larrua sano duzu.

18)
– Larruan eri banintz
bada mediku anitz.
Nire mina ez du baina
sendatzerik zeuk baizik.

19)
Zure irudi sotilak
eta aire jentilak
gaizkiago zauritu nau
ezi dardo bipilak.

20)
Bihotzean dut zauri
gatibatu naiz zuri.
Amoretzat har nazazu
naizena zure naiz ni.

21)
Ametsetan, itzarritan
ni zugatik minetan.
Hitz bat onik esadazu
hil ez nadien bertan.

22)
– Zer nahi duzu dezadan
horren gainean esan?
Ni nolako beste asko
badituzu hor plazan.

23)
– Beste oroz gainetik
zu maitatzen zaitut nik.
Mundu oro utz nezake
zure amoregatik.

Hanbat ere handi tuçu
ecin erran nizaqueçu
Eguiara vaciniaqui
urricari nanguidiçu.

Penac handi vadituçu
acheterric asqui duçu
Sarri sendoturen cira
larruyori osso duçu.

çauri banynz larryuan
vada acheter herrian
Ene mina sendo ezliro
çuc bayeci vician.

çure yrudi ederrac
eta mayna gentilac
Gayzquiago çauri nici
eci dardo çorroçac.

Vihocian çauri nuçu
eta gathibatu nuçu
Amoretan har naçaçu
nic dudana çure duçu.

Amexetan aguerritan
ni çugatic doloretan
Hiz bat honic erradaçu
hil eznadin othoy bertan.

Cer nahi duçu darradan
gauça horren gaynian
Ni nolacoric asqui duçu
berceric ere herrian.

Verce oroz gaynetic
hanbat mayte citut nic
Mundu oro uci niro
çure amorecatic.

24)
Nahi al duzu egia?
Nik dut pena handia.
Sekretuki mintza gaiten
biok, otoi, maitia.

Albanerra eguya
nyc dut pena handia
Secretuqui minça gaiten
bioc othoy maytia.

AMORROSEN DISPUTA

1)

*Uztazu hurbiltzen
amore maite!
Orain banantzea
min litzaiguke.*

2)

– Otoi, banantzera
maitea, goazen
jendeak baitira
hasi bekaizten.
Laido hartu gabe
geldi gaitzen
denek irrigarri
har ez gaitzaten.

3)

– Elas, amorea
ene galmena
zurekin nekatu
ezin naizena!
Bizirik banandu
hau dolamena!
Hain laster utzi nahi
al nauzu dena?

4)

– Neuk ere egiaz
zaitut maitatu
amodio gabez
uzten ez zaitut.
Baina Jainkoaren
beldur dut hartu
sobera baitugu
egin bekatu.

5)

– Oraindik, amore
gaituzu gazte
Jainkoaz gero ere
oroit gaitzke.
Are elkarrekin
ongi gaudeke
orain banantzea

Amorosen disputa

*Vztaçu hurrancera
amore mayte
Oray particeco
damu guinate.*

Amoryac othoy
parti guitecen
Gendiac diradela
hassi beqhaicen
Laydoc hartu gabe
gueldi guitecen
Gendec yrrigarri
guerta ezquiten.

Elas amoria
ene galduya
Iamas çurequila
enaynde enoya
Biciric particia
pena handia
Honeyn sarri uci
nahi nuçuya.

Nihaurc ere guerthuz
mayte bacitut
Onerizte gabez
uzten çitut
Vana ieyncoaren
nuçu beldurtu
Sobera diguici
eguyn beqhatu.

Orano amorea
gazte guituçu
Ieyncuaz orhiceco
leqhu diguçu
Are elgarrequi
vehar diguçu
Oray particeco

<p>min litzateke.</p> <p>6) – Bekatu honetan hilko bagina kondena liteke ene arima. Ez zaitez engoitik nitaz engaina ezta ni probatzen segi aitzina.</p> <p>7) – Sineste bat badut senti bezala nik zu maitatzea zinez honela Jainkoari ere eder zaiola. Hargatik kondena ez gaitzakela.</p> <p>8) – Holako lausenguz utzi nazazu ia eroturik narabilazu. Erregutzen dizut: urrun zaitez zu! Nire gogoa ongi ez dakusazu.</p> <p>9) – Nola diostazu holako hitza? Beti daukazu zuk tema bortitza. Eraman zenidan lehen bihotza gero gatibatu neure gorputza.</p> <p>10) – Ez niri holako kexurik para geldi zaiten nahi dut zuhur bazara. Gure etxean norbait ohartzen bada biok betirako</p>	<p>damu guituçu.</p> <p>Beccatu honetan hilen baguina Damnatu luqueçu ene arima Ecitela engoytic nitan engana Nyri phoroguric eztidaçula.</p> <p>Cineste bat dicit gogoan honela Nic nola daducat amore çugana Ieyncoari ere eder çaycala Hargatic gaycexi ezquiçaquela.</p> <p>Horlaco lausenguz uci naçaçu Nola erhoturic narabilaçu Othoyceniçauçu nyry euztaçu Ene gogoa unsa eztacusaçü.</p> <p>Nola diostaçu horlaco hiça Bethi daducaçu tema borthiça Ioan daraudaçu lehen vihoça Guero gathibatu neure gorpuça</p> <p>Horlaceco erançutez uci naçaçu Gueldi vacinite nahi nyqueçu Gure echian ohart vadaquizquigu Bioc iagoyticoz</p>
---	---

<p>galduak gara.</p> <p>11) – Jendea so al da beti gugana? Ni neu sekretuki nator zugana. Zeuk dakizu noiz den aukera ona nigana etortzea ez bedi lana.</p> <p>12) – Pitxer ibilia puskatu ohi da eramango nauzu laido handira. Zuk ni uztea da nire desira nitazko atseginak bukatu dira.</p> <p>13) – Amore maitia hona egia: zukan diagozu ene bizia. Nahiago nuke nik zu ikustia ezen ez neuretzat herri guztia.</p> <p>14) – Hobe duzu xarma hoiek uztea nik nahi dudana da zu isiltzea. Ordu da oroitzeko Jainko maitea. Har beste bat, niri eman bakea.</p> <p>15) – Beldur al zara orain zu Jainkoaren? Hola agurtu nahi al nauzu hemen? Ez naiz, ba, hutsean zugandik joanen! Egin behar duzu</p>	<p>galdu guituçu.</p> <p>Gendiac so daudia bethi gugana Nihaur secretuqui nator çugana çuhaure daquiqueçu noyz den ayzyna Neque eçayçula gitia nigana.</p> <p>Picher ebilia hauxi diohaçu çuc ny laydo handiz vetheren nuçu Othoycenyçayçu nyri uztaçu Niçaz axegunic ecin duqueçu.</p> <p>Amore maytia dioxut eguia çutan diagoçu ene vicia Nahiago dicit çure iqhustia Eci neuretaco herri gucia.</p> <p>Horlaco lausenguz uci naçaçu Ichil vacinite nahi niqueçu Ieyncoaz orhiceco ordu luqueçu Berçeric har eçaçu niri uztaçu.</p> <p>Ieynco veldurturic iarri ciraya Halaz despeditu nahi nuçuya Hebetic ioan gabe ene buruya Eguin vehar duçu</p>
--	---

nik zer nahi nuen.

16)

– Orain nahi al nauzu
hemen bortxatu?
Aldi hontan, otoi
utzi nazazu.
Beste aldi batez
jinen natzaizu
nahi duzuna orduan
eginen duzu.

17)

– Antzinatik hona
dator esana
uzten duen horrek
eskuan dena
nahi duenean
ez dukeela.
Bazter hitzak eta
betor egina.

18)

– Orain egin duzu
nahi duzuna
baita eman niri
ahalkeizuna.
Madarikatzen dut
neure fortuna!
Nola etorri naiz
egun zugana?

19)

– Ez zu desespera
otoi, maitea!
Itzul honantz zeure
begitarte.
Niregan baduzu
adiskidea
banaiz senar gaizto
baten pare.

ene nahia.

Oray nahi nuçuya
heben vorchatu
Aldi honetan othoy
vci naçaçu
Berce aldi batez
ginen nyçayçu
Nahi duçunori
orduyan daydiçu.

Haraycinacoric
duçu errana
Uci daçanorrec
escuyan duyena
Nahi duyenian
eztuqueyela
Hiçac haribira
dugun eguyna.

Oray eguyn duçu
nahi duçuna
Eman darautaçu
ahalgueyçuna
Maradicacen dut
neure fortuna
Ceren gin vaynendin
egun çugana.

Amore ecitela
othoy despara
Honat veguitartez
yçul çaçuiçat
Ni vaytan duqueçu
adisquide bat
Valia diquecit
senhar gayxto bat.

11

ORDU GAITZAREKIN
ZOAZKIT HORTIK

– Orain behar al guk
konkista berri?
Ezteiak joanik
gomitu handi?
Ez zara zu horren
andere larri.
Merezia esango
nizuke sarri.

11

Ordu gayçarequi
horrat zaquiçat

Oray vehar duguya
conquista verri
Eztey yraganez
gomitu handy
Hanbat ecirade
andere larri
Merexi duçuna
narçaque sarri.

AMORE GOGORRAREN
DESPITA

1)

Andre eder jentil batez
hautatu zait begia
herri orotan gauza oroz
hain da paregabia.
Eskaria egin nion
esateko egia
biderik ba ote nuen
lortzeko haren grazia.

2)

Erantzuna eman zidan
luzamendu gaberik:
– Maite zaitut, noski, baina
kortesiaz bakarrik.
Nigan beste deus ez duzu
abisatzen zaitut nik.
Gazte zoro naizen arren
ez naiz bizi zugatik

3)

– Zu gaztea bazara ere
adimen ona duzu
nik zugatik dudana pena
otoi, senda ezazu.
Har nazazu zeuretzako
bizirik nahi banauzu
ni zugatik hil banadi
kargu handi dukezu.

4)

– Ohorea galduz bada
gaitz da plazer osoa
ezin duzu niri eman
horrelako mintzoa.
Badakizu txarkeria
beti dela laidoa.
Zu jakintsu, ni eroa
zurekin bat ez noa.

Amore gogorraren despita

Andre eder gentil batez
hautatu çayt veguia
Herri orotan gauça oroz
eztu vere paria
Othoyce bat baneguyon
larradala eguia
Biderican liçatenez
nynzan haren gracian

Respostuya eman deraut
luçamendu gaberik
Cortesiaz hon deriçut
nic çuri hayn segurqui
Berçeric nitan eztuqueçu
abisacen citut nic
Gazte çoroa nyçan arren
enuqueçu hargatic.

çu gaztia bacirere
adimendu hon duçu
Nic çugatic dudana pena
othoy sendi eçaçu
çuretaco har naçaçu
vici nahi vanuçu
Ni çugatic hil banadi
cargu handi duqueçu.

Ohoria galcen dela
plazerguitia gayz duçu
Niri horla erraytia
çuri eman eztuçu
Gayxteria eguitia
laydo dela daquiçu
Ny erhoa çu iaquynxu
veha enaquidiçu.

5)
– Zure nahia hori bada
isilik duk gordeko
gure arteko amorea
inork ez du jakingo.
Egidazu bide, otoi,
gordeki mintzatzeko
hitz egite soilak gaitzik
ez dizu ekarriko.

6)
– Gaizki egiten denean
jendeak laster daki.
Nire gaizki egitea
neureen laido handi.
Zu eta ni elkarrekin
ongi ezin izaki
zaude isilik, zoaz eta
denok hala hobeki.

7)
– Mintzo horrek urratu nau
bihotzaren hondora
nik zugatik dudan pena
are barnerago da.
Zutaz, beraz, ez banadi
orain bertan kontsola
ene arima jalgiko da
hutsik gabe kanpora.

8)
– Arimaren jalgiteak
mingarri behar du, bai!
Zurea hor egongo da
min duzunik orai.
Utzidazu albo egiten
zure kexa hutsaloi
probetxurik ez dukezu
sinets nazazu, otoi.

9)
– Ni zurekin gaizki banaiz
nola bizi naiteke
ene bihotz eta arima
zurekin badirade?
Bihotz eta arima gabe
inor ezin liteke
zu eta ni elkarrekin
ongi izan gintezke.

çuhaur nahi bacirade
ni segretu nuqueçu
Gure arteko amoria
ehorc eciaquiqueçu
Secretuqui minçaceco
othoy bide ydaçu
Enequila minçaciaz
gayciq ecin duqueçu.

Gayzqui eguin dadinian
gendec sarri daquite
Ene gayzqui eguitiaz
enec laydo luqueyte
çu eta ni elgarrequi
unsa ecin guynate
çau de yxilic çoz horrat
eta hobe baitate.

Hiz horreçaz erdiratu
deraudaçu vihoça
Nic çugatic dudan pena
hanbat ere handi da
çuçaz veraz ezpanadi
oray vertan consola
Ene arima ialguiren da
falta gabe canpora.

Arimaren ialguitia
neque handia duçu
Oray duçun penegatic
çuria egonen duçu
Horrelaco vanitatez
nyri segur uztaçu
Provehuric eztuqueçu
eta cinhex nazaçu.

çurequila gayzqui vaniz
nola vici ninçande
Ene vihoz eta arima
çurequila dirade
Vihoz eta arima gabe
ehor ecin liçate
çu eta ni elgarrequi
unsa ahal guinate

10)
– Jauna, zinez hik badaukak
porfidia handia.
Isil hendin nahi niked
ala ene fedia!
Hitz gutxitan adi ezak
nahi baduk egia:
Zinez ere hiregana
ez diat isuria.

11)
– Hori hola zitekela
banuen arrangura.
Andreak ez badu laket
bera nahi duen hura
ni lehenik eta gero
maite oro galdu da.
Nik zu maite izatea
gaitzi ez dakizula.

12)
Inor izan al da nire
ditxa izan duena?
Ni maiteak ez nau maite
nik hura ezin erdeina.
Nonbait ari naiz jarraitzen
atxiki ezin dena.
Zergatik maite ote dut
ni maite ez nauena?

13)
O, Jaungoiko, muta ezak
nire bihotz minbera
hark bezala ez dezadan
axolik amorera.
Bortxaz ere gaizki baino
ongi egin hobe da
ni maitatzen ez nauena
neuk utziko dut bera.

14)
Andre faltaz ez naiz, ba, ni
izango hiltzen lehena!
Denak utzi behar ditut
non baitago onena.
Haien onik ez dut baizik
arimaren galmena
bategatic laster uka
nitzake diren denak.

Iauna guertuz hic daducac
porfidia handia
Ixil endin nahi niquec
ala ene fedia
Hiz gutitan adi ezac
nahi vaduc eguia
Hiretaco eztiaducac
guertuz neure buruya.

Hori horla liçatela
nicin neure veldurra
Andriac hon deriçanari
ezpadaqui mesura
Ni lehenic eta guero
amoros oro galdu da
Nic çuri hon vaderiçut
gayci eztaquiçula

Egundano yçan daya
ni bay dichatacoric
Ny amoriac enu mayte
nic hura ecin gaycexi
Uste dicit narrayola
ecin duquedanari
Ceren vada hon derizat
hon ezteriztanari.

Iangoycoa mutha ezac
othoy ene vihoça
Amoriaren harc veçala
nic eztudan axola
Borchaz ere gayzqui bano
hongui eguitia hobe da
Nihauc ere uciren dut
hon ezteriztadana.

Andre faltaz eniz hilen
valinba ni lehena
Oroz exi vehar dicit
non vaytate hobena
Hequi ecin medra nayte
bay gal neure arima
Bategatic sarri niro
diren oroz arnega.

MOSEN BERNAT
ETXEPAREREN KANTUA

1)
*Mosen Bernat, jakin bahu
gauza nola jinen zen
Bearnora joan gabe
egoten ahal hintzen.*

2)
Heldu behar duen gauzan
ez da eskapatzerik
nik hobenik ez bainuen
ongi egitez besterik.
Ezbideak atzeman nau
bide ez zen lekutik
erregeri gaizki saldu
naute hoben gaberik.

3)
Jaun erregek mezu niri
joateko amen batez
haserre zela entzun nuen
baina nik hobenik ez.
Etsaiei ez uztearren
lekurik maleziez
joan nintzen ez nagien
ihesik hoben gabez.

4)
Baldin hara joan ez banintz
erruduna nintzaken
nire kontra faltseria
sinetsiko baitzuten.
Justizian entzun banintz
laster jalgiko nintzen
horren faltan hasia naiz
etortzeaz damutzen.

Mossen Bernat
echaparere cantuya

*Mossen bernat iaquin vahu
gauça nola ginen cen
Bearnora gabetariç
egon ahal inçanden.*

Heldu vehar duyen gauçan
ezta escapaceric
Nic oguenic eznuyela
honguiguitez verceric
Bidegabec haritu nu
vide eznuyen leqhutic
Erregueri gayzqui saldu
guertuz oguen gaberic.

Iaun erreguec meçu nenzan
ioanenguion bertaric
Gaycez lagola ençun nuyen
bana nic ez oguenic
Izterbeguier eneyen
malician leqhuric
Ioan nendin enaguien
oguen gabe ihesic.

Valinetan ioan ezpaninz
oguenduru ninçaten
Ene contra falseria
bethi cinhexi çaten
Iustician ençun vaninz
sarri ialgui ninçaten
Haren faltaz hassi nuçu
iauguitiaz dolucen.

5)
Besten gaitzaz zentzatzea
zuhurtzia handi da
etsaiak dituen oro
nigan bedi gaitza.
Abantailan den bitarte
sar bedi aterira
gaitza urrun egoztea
beti dator ongira.

6)
Gaizoa ni, etsaiaren
eskura neu etorritz!
Nire ongi eginak ere
orain oro dira gaitz.
Banukeen arrazoia
haien mende ez banintz
mirariak eginda ere
orain erruduna naiz.

7)
Testimonio faltsutik
ezin libratu inor
Jainkoa ere nola hiltzera
kondenatu zuten hor.
Bekatari handi gara
ez da harritzerik zor
bide gabe salatua
baledi nor edo nor
pazientza har dezagun
Jainkoa lagun betor
malezian dabilzanei
berak emango zigor.

8)
Ene Jainko, zu baitzara
egiazko jujia
zure epaian berdin dira
handi eta txikia.
Nornahik egin didala ere
malezia handia
barka haiei eta niri
aitor bekit egia.

Vercen gayçaz cençacia
çuhurcia handi da
Yzterbegui duyen oro
nitan vedi gaitza
Abantallan dabilela
albayledi segura
Gayça apart egoyztea
bethi ere hobe da.

Ni gayxoa exayari
nihaur giniz escura
Ene unsa eguinac ere
oray oro gayz dira
Haren menian ezpanengo
nic nuqueyen çucena
Miraculu vanagui ere
oray ene oguena.

Falsu testimoniotic
ecin ehor veguira
Halaz condemnatu çuten
ieyncoa ere hilcera
Beccatore guira eta
mira eztaquigula
Balinetan vide gabe
acusatu baguira
Paciença dugun eta
ieyncoac guizan ayuta
Malician dabilena
verac diro mendeca.

Iangoycua çu cirade
eguiazco iugia
çure gortean vardin dira
handi eta chipia
Norcvayt ere eguyn deraut
malicia handia
Hayer hura othoy barqha
niri valia eguia.

9)
Ene Jainko, zain nazazu
etsaiaren menetik
nik neureak badakuskit
nire gaitzaz pozturik.
Dakuskidan haiek zure
eskuaz zigorturik
nitaz egin ez dezaten
uste duten irrik.

10)
Nire arimak zure kontra
Jauna, bekatu egin du.
Haiengatik ez niri hemen
otoi, eman gaztigu.
Nik errege, dakidala
ez dut ezertan mindu.
Zergatik behar dut hemen
honen luze gatibu?

11)
Punitu nahi badidazu
zukanako hutsegina
errege eta beste oro
jarri ene aitzina
gogo onez laudatuko
dut nik zure egin
eta hartu pazientki
etsaiek egin mina
nahiz hemen ni penatu
salba dadin arima.
Zeuk ikusi zein den haiei
dagokien ordaina.

12)
Penak oro jiten dira
Jainkoaren nahitik
eta berak permititzen
oro onenagatik.
Agian hola ez banengo
hila nintzen engoitik.
Nire etsaiak, galdu ustez
neure ona egin dik.

Iangoycoa çuc veguira
exayaren menetic
Nic eniac badacusquit
ene gayçaz vozturic
çure escuyaz dacusquidan
heyec gaztigaturic
Ene gaynian eztaguiten
uste duten yrriric.

Iangoycua eguin dicit
çure contra beccatu
Hayez nahi enuçula
othoy heben punitu
Erregueri daquidala n
ic ezticit faltatu
Ceren egon vehar dudan
heben hanbat gatibu.

çuganaco huxeguinez
nahi banuçu punitu
Erregue eta verce oro
ene contra armatu
Gogo honez nahi dicit
çure eguina laudatu
Eta exayac didan pena
pacientqui haritu
Nahiz heben pena nadin
arima den salvatu
Hayec cer merexi duten
çuhaurrec iqhustzu.

Penac oro giten dira
ieyncoaren nahitic
Eta verac permiticen
oro hobenagatic
Aguian hula ezpanango
hil ninçanden engoytic
Ene exayac galdu ustian
ene hona eguin dic.

13)
Berak batzuk hilak dira
ni oraino bizirik
gero ongi egin asmoz
ohorezki jalgirik.
Gaitza nola, ona ere
sortuko da bertatik.
Gaitza ikusi ez duenak
ona zer den ez daki.

14)
On egitez, gaitz sufritzez
behar dugu salbamen
pena eta miseria
nik dastatu ez nuen.
Orain dakit, Jaunak ez nau
kondenatu nahi zeren
berak egin baitu hola
ni pena nadin hemen.
Urre onak ere sutan
dira ongi purgatzan.

15)
Ez ninduen zigortuko
bere nahi ez banindu
aitak bere haur maiteak
gaztigatu ohi ditu.
Ale onak gorde aitzin
behar dira garbitu
Jaungoikoak ere agian
nitaz hala egin du.

16)
Mosen Bernat, pentsa ezak
gaitza bada kartzela
nonbait ere infernua
are gaitzago dela.
Hik badukek hemen, baina
haiek ez nork kontsola
penak hemen fin dik laster
haienak ez sekula.

Berac baçu hil dirade
ni are nago viciric
Hongui eguin uste vaytut
ohorezqui ialguiric
Gayça nola hona ere
iauguinen da vertaric
Gayz eqhussi eztuyenac
hona cer den eztaqui.

Hongui eguitez gayz sofritutuz
vehar dugu salvatu
Pena eta miseria
nic enuyen dastatu
Oray daquit iangoycuac
enu nahi damnatu
Heben ene penacera
çaydanyan orhitu
Urhe hunac vehar dici
suyan unsa purgatu.

Vere nahi ezpanindu
eninduquen punitu
Aytac vere haur maytia
gaztigatu ohi du
Bihi hunac gorde gabe
vehar dici xahutu
Iangoycoac nizaz ere
hala aguien eguin du

Mossen bernat pensa ezac
carcel hori gayz bada
Nonbait ere yfernuya
are gayçago dela
Heben hic vaduquec vana
hayec ez norc consola
Penac heben fin dic sarri
hayenac ez secular.

17)
Bat ere ez duk hemen minik
ez bada jalgi nahia
han direnek beti dute
sutan pena handia.
Pena handi, izugarri
atsedenik gabia
hartaz oroit hadi eta
dukek pazientzia.

18)
Lehen besteren gaztigari
orain gaztiga hadi
pena hontaz oroiturik
begira hangoari.
Hemengoaz bestekotik
geratzen bahaiz garbi
enplegu ona eman diok
munduko denborari.

19)
Hor balego, hik gaztiga
hezake oro jende
bada, orain jar herori
gaztigu hoien mende.
Kriseiluarena gerta
ez bekik hiri ere:
besteri argi egin eta
bere burua erre.

20)
Hiri egin badiate
bidegabe itsusia
Jainkoari gomendaiok
heure auzi guzia.
Hark orori emanen dik
nori zer merezia
gaizkileei pena handi
jasaileei grazia.

21)
Ez hadila gorrotoan
kondenatu herori
desiratuz hel dakion
gaizkia gaiztoari.
Jainkoari egiten duk
biziki irain handi
hura egiten duk borrero
eta hi epaikari.

Vatre minic heben eztuc
lecot ialgui nahia
Han direnec bethi die
suyan pena handia
Pena handi ycigarri
eceyn pausu gabia
Harçaz orhit adi eta
duquec paciencia.

Vercen gaztigari inçan
oray adi gaztiga
Pena honez orhit eta
hangoa ezac cogita
Hebengoaz vercecoa
albaheça escusa
Unsa enplegatu duquec
heben eure denbora.

Hor balego gaztigayro
ihaurc verce gucia
Bada oray gaztiguezac
aldiz eure buruya
Quirysayluyari nola
hiri hel eztaquia
Bercer argui eguin eta
erracen dic buruya.

Hiri eguin vadaraye
bidegabe handia
Ieyncoari gomendezac
eure gauça gucia
Harc orori emanen dic
bere merexituya
Gayzquiguilera pena handi
pacienter gloria.

Eztaçala gayzeriztez
damna heure buruya
desiratuz gayxtoari
hel daquion gayzquia
Ieyncuari eguiten duc
iniuria handia
Hura borrar eguiten duc
iuge eure buruya.

22)
Zertan duan hik epaitzen
heure arerioa
hartan bertan kondenatzen
dukek heure gogo.
Eta ez zaik baliako
gero aiko-maikoa
erakustak nonahi nor den
errurik gabekoa.

23)
Jaungoikoa, orain badut
larritasun handia
hiri hontan heriotzaz
hiltzen ari jendia.
Gatibutzan hil ez nadin
gizon erru gabia
otoi, sano jalgitzeko
egidazu bidia
etsaiak ez dezan egin
gibeletik irria:
«Erruduna zuan eta
han galdu dik bizia»

24)
Libertatea nola den
gauzetako onena
gatibutzan egotea
hala pena gaitzena.
Ni bezala ez dadila
otoi, inor engaina
ezta ere hitz orotan
inoiz fida gizona.
Ene Jainko, zain ezazu
otoi, nire zuzena.

Amen!

Certan iuya hic vaytaçac
eure yzterbeguia
Hartan condemnacen duquec
yhaurc eure buruya
Eta hartan eztaquidic
escusaric valia
Eracustac ehon ere
nor den oguen gabia.

Iangoycua oray dicit
eguiteco handia
Hiri honetan eryocez
hilcen duçu gendia
Gathibutan hil enadin
guiçon oguen gabia
Ossoric othoy ialguiteco
çuc ydaçu vidia
Izterbeguiac eztaguidan
guibeletic irria
Oguenduru çuyan eta
han galdu dic vicia.

Libertatia nola vayta
gaucetaco hobena
Gathibutan egoytia
hala pena gaycena
Ny veçala ezadila
othoy ehor engana
Ezetare hiz orotan
fida ere guiçona
Iangoycua çuc veguira
niri ere çucena.
Amen.

KONTRAPAS

Euskara!
Jalgi hadi kanpora!

1)
Garaziko herria
benedika dadila!
Euskarari eman dio
behar duen maila.

Euskara!
Jalgi hadi plazara!

2)
Beste jendek uste zuten
ezin eskriba ziteken.
Orain dute frogaturik
nola engainatu ziren.

Euskara!
Jalgi hadi mundura!

3)
Lengoaietan ohi hintzan
estimatze gutxitan.
Orain aldiz hik behar duk
ohorea orotan.

Euskara!
Habil mundu guztira!

4)
Beste oro izan dira
beren goren gradura.
Orain hura igoko da
beste ororen gainera.

Euskara!

5)
Basko orok preziatzen
euskara ez jakin arren.
Orok ikasiko dute
orain Euskara zer den.

Contrapas

Heuscara
ialgui adi campora

Garacico herria
Benedica dadila
Heuscarari eman dio
Behar duyen thornuya.

Heuscara
Ialgui adi plaçara

Berce gendec uste çuten
Ecin scriba çayteyen
Oray dute phorogatu
Enganatu cirela.

Heuscara
Ialgui adi mundura

Lengoaietan ohi inçan
Estimatze gutitan
Oray aldiz hic behar duc
Ohoria orotan.

Heuscara
Habil mundu gucira

Berceac oro inçan dira
Bere goihen gradora
Oray hura iganen da
Berce ororen gaynera.

Heuscara

Bascoac oroc preciatzen
Heuscara ez iaquin harren
Oroc iccassiren dute
Oray cer den heuscara.

Euskara!

6)
Oraindaino hor egonik
inprimatu gaberik
hi engoitik ibiliko
mundu guztietarik.

Euskara!

7)
Ezein ere lengoaiarik
ez frantsesa, ez besterik
orain ez da erideiten
euskararen parerik.

Euskara!

Jalgi hadi dantzara!

Heuscara

Oraydano egon bahiz
Imprimitu bagueric
Hi engoitic ebiliren
Mundu gucietaric.

Heuscara

Eceyn ere lengoageric
Ez francesca ez berceric
Oray ezta erideyten
Heuscararen pareric.

Heuscara

Ialgi adi dançara.

SAUTRELA

*Euskara da kanpora eta
goazen oro dantzara.*

1) O euskara, lauda ezak
Garaziko herria
zeren handik ukan baituk
behar duan neurria.
Lehenago hi baihintzen
lengoaietan azkena
orain aldiz izango haiz
orotako lehena.

2) Euskaldunak mundu orotan
preziatu ziraden
baina haien lengoaiaz
beste oro burlatzen
zeren ezein eskrituran
erideiten ez baitzen.
Orain dute ikasiko
nola gauza ona zen.

3) Euskaldun den jende orok
altxatu bekokia
zeren haien lengoia
izango da floria.
Printze eta jaun handiek
orok haren galdia
eskribituz ahal balute
ikasteko desira.

4) Desir hura konplitu du
Garaziko naturak
eta haren adiskide
orain Bordelen denak.
Lehen inprimatzailea
euskararen hura da.
Basko oro obligatu
behin betiko hargana.

*Etai lelori bailelo
leloa zarai leloa
Euskara da kanpora eta
goazen oro dantzara.*

Sautrela

Heuscara da campora, eta
goacen oro dançara

O heuscara lauda ezac
garacico herria
Ceren hantic uqhen baytuc
behar duyan thornuya
Lehenago hi baitinçan
lengoagetan azquena
Oray aldiz içaneniz
orotaco lehena.

Heuscaldunac mundu orotan
preciatu ciraden
Bana hayen lengoagiaz
berce oro burlatzen
Ceren eceyn scripturan
erideiten ezpaitzen
Oray dute iccassiren
nola gauça hona cen.

Heucaldun den guiçon oroc
alcha beça buruya
Eci hayen lengoagia
içanen da floria
Prince eta iaun handiec
oroc haren galdia
Scribatuz hal balute
iqhasteco desira.

Desir hura conplitu du
garacico naturac
Eta haren adisquide
oray bordelen denac
Lehen inprimiçalia
heuscararen hura da
Basco oro obligatu
iagoiticoz hargana.

Etay lelori bai lelo
leloa çaray leloa
Heuscara da campora eta
goacen oro dançara.

HASIERA AHULARI
BERRAIO ZORI HOBEA

Parlamentuko erregistroen laburpena

François Morpain-ek, Bordele hiriko maisu inprimatzaileak, apalki eskatzen du: *Linguae Vasconum Primitiae* izeneko liburutxo bat inprimatzeko anitz gastu eta ordain egin behar ukan duela.

Kausa horregatik Gorteak nahi ukan dezala barruti honetako liburu-inprimatzaile guztiei aipaturiko liburua inprimatzen edo inprimarazten debekatzea, eta merkatari guztiei hiru urtez beste inprimaketarik saltzen eragozte, Toursko mila liberaren penapean. Justizia egiteko.

Eta eskari hau ikusirik, Gorteak esaniko Morpain-ek galdeturiko debekuak onartu ditu, Toursko mila liberaren penapean.

Bordelen emana, mila bostehun eta berrogeita bosgarreneko apirilaren azken egunean.

Bat dator.

De Pontac.

DEBILE PRINCIPIUM
MELIOR FORTUNA
SEQUATUR

Extraict des registes de Parlement.

Supplie humblement François Morpain, maistre Imprimeur de ceste ville de Bourdeaulx, que pour imprimer un petit tracte intitule, *Linguae vasconum primitie*, luy a convenu faire plusieurs fraiz et mises.

A ceste cause plaise a la Court inhibitions estre faictes a tous les Imprimeurs libraires de ce Ressort de imprimer ou faire imprimer le dict Tracte, et a tous marchans de non vendre dautre impession dans troys ans a peine de mil liures tourñ. et ferez iustice.

Veue laquelle requeste la court fait les inhibitions requises par le dict Morpain a peine de mil liures tourñ. Faict a Bourdeaulx en Parlement le dernier iour Dapuril, mil cinq cens quarante cinq.

Collation est faicte.

De Pontac.